

guaixe

SAKANAKO ASTEKARIA

2022-04-01 OSTIRALA / 812. ZENBAKIA / TOKIKROM
SAKANAKO ASTEKARIA GUAIXE.EUS

æk
22.korrika

HITZELAN HITZEKIN

Amurriotik Donostia

2022ko martxoaren 31tik apirilaren 10era

Batxilergoko aurrematrikula

Apirilaren 7tik 13ra

Gizarte eta Giza Zientziak
Zientzia eta Teknologia
Orokorra



IES ALTSASU BHI





Juan Cruz Bengoetxea Saez de Maturana, Mikel Zelaia Mendia, Xesc Alemany Sureda, Mari Mar Aldaz Iriarte eta Juan Jose Herrero Palomo euskaltegian.

Alfredo Alvaro Igoa ALTSASU

Hemen da Korrika. 22. edizioa Amurrion hasi zen atzo arratsaldean eta Donostian bukatuko da hilaren 10ean. Euskararen aldeko aldarrikapena modu partehartzaile, jolasti eta dibertigarrian zabaltzen du Euskal Herrian barna, eta diasporaren bidez munduan barna ere. Korrikaren antolatzailea Alfabetatze eta Euskalduntze Koordinakunde (AEK) da. Eta errelebo lasterketaren bidez helduei euskara irakasten segitzeko ekonomia babesa lortzen du. Beraz, Korrika-ko protagonistak lekukoarekin eta haren ondoan eta atzean laster egingen duten pertsonak dira. Baina benetako protagonistak Itsasi euskaltegian opatu ditugu, A2 mailan ikasten.

22. Korrika

Altsasuko Kukuerreka elkartearen Korrika afaria dago gaur eta han

Murgiltzea euskaltegian

Pausoz pauso Korrikak bide egiten duen bitartean, milaka pertsonak beraien pausoak euskaltegira zuzentzen dituzte. Euskararen hizkuntza komunitatea handitzea erabaki dute. Ikas prozesu beteak penak eta pozak. Hitza eta ekina

afaria zerbitzaten egonen direnetako bat da Juan Cruz Bengoetxea Saez de Maturana (Piloto). Afaldu ondoren, Korrika iritsi bitartean "ez dakit mus partida edo zer egingen dugun. Baina gero korrika egitera. Ez dakit zenbat kilometro, baina korrika egingen dudala ziur". Haren taldekide

Xesc Alemany Sureda eta Mari Mar Aldaz Iriarte ere laguntzen egonen dira gaur. Azken biek ez dakite zer egingen duten Korrika iritsi bitartean. Alemanyk aukera baliatu du bere taldekide batzuen sukaldari bertuteak goratzeko. Eta azpimarratu du berarendako lehenengo Korrika


izanen dela bihar goizaldekoa. "Ez dut ulertzen nola den dena. Ulertu eta bizi nahi dut". Jakina, korrika egingen du. Bide batez, sorterrian, Mallorcan, Correllengua dutela gogorarazi du.

Juan Jose Herrero Palomok (Koke), lan kontuengatik ezingo du Korrikan parte hartu goizal-

dean. Azkenik, Mikel Zelaia Mendiak ez du herrian laster egingen: "Altsasuko Koadrila Xelebreak Cadreitan hartu dugu kilometro bat, eta igandean parte hartuko dugu Korrikan". Erriberan asteburua emanen dute, larunbatean Bardean buelta bat emango dute. Cadreitako lagun euskaldun batekin joanen dira natur perkea bisitatzera.

Zergatik euskara ikasi

Zelaiak aurretik ere euskara ikasi nahi zuen. Jubilatzean denbora pixka bat daukala baliatu du asmoa egia bihurtzeko. Baina esan duenez, "jubilatuek sekula ez dugu denborarik". Aldazi "euskara asko gustatzen" zaio. Orain denbora gehiago daukanez, ize-na ematea erabaki zuen. "Giro ona daukagu eta oso gustura nago", gaineratu du. Herrero ere "oso gustura" dago ikasten. Irakaslearekin ere taldea gustura



EGOKI


Ventanas PVC Leihoak

www.ventanasegoki.com

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

egoki@ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea



dagoela gaineratu du. Bengoetxeak euskara ikasi nahi du: "nire helburua ez da guztia ulertzea. Nire helburua da beste pertsonak hizkuntzaz ez aldatzea ni nagoen".

Alemanyi asko gustatzen zaizkio hizkuntzak eta honakoak dakizki: katalana, gaztelania, ingelesa, eta italiara eta gaeliko pixka bat. Eta ikasi duen euskara pixka. "Beste herrialde batera joaten naizenean bertako hizkuntza ikastea gustatzen zait. Antropologoa naiz eta herriak sakon ulertzeko garrantzitsua da hizkuntzak ezagutzea", azaldu du. Euskara ikasten Mallorkako Euskal Etxean hasi zen: "sei hilabete egon nintzen han ikasten. Irlandara joan nintzen eta beste sei hilabete euskara ikasten egon nintzen. Baita gaeliko apur bat ere".

Hitz egiteari ekin

Grabagailuaren presioa gaindituta, boskoteak euskaraz erantzun zituzten galderak. Haien euskaltegiko ikasgelatik kanpo hitz egitea beste kontu bat da. Herreroentzat ongi doa ikaske-ta prozesua, baina hitz egiteko "konfiantza hartzea kostatzen" ari zaiola esan du. "Aurrera egiten ari naiz. Ikasten ari naizen hirugarren urtea da eta ongi nago". AEKra euskara ikastera joan izanaz poztan da Aldaz. "Konturatu naiz gehiago ulertzen dudala. Irakurtzean ere. Baina hitz egiten, gaizki. Blokeatuta nago, eta ezin dut. Hitz egitea asko kostatzen zait". Hala ere, "gustura eta gogotsu" dago. Alemany "pozik" dago "nire eta gure euskara maila, pixkanaka, gero eta hobea delako. Helburua da, bidea, gutxika aurrera egitea". Ulermena hobetzeko bere truke-tako bat ere esan du: "goize-ro Guaixe irakurtzea". Ikaskideek oi-hu egin diote.

Zelaiak esan duenez, "asko kostatzen zait ulertzea, eta besteei hitz egiteko blokeatuta nago. Irakurtzen, beno, gutxi gorabehera, pixka bat ulertzen dut. Belarriprest bai, baina belarria itxita dago". Belarria "egiteko" telebista eta irratia euskaraz jartzen ditu, "baina asko kostatzen zait ulertzea". Bengoetxeak aitortu duenez, "egunero ikasi, baina hitz egiteko soltura... ezer". Irakasle eta talde "majoa" dituela esan du, baina aitortu du gauzak memorizatzeke arazoa duela, "trabatuta" sentitzen da, eta "az-

karrago joan nahiko nuke, baina burua..." Gaineratu duenez, "pixkanaka-pixkanaka, erdi euskaraz erdi gaztelaniaz, ulertzen dut. Egunero gehiago ulertzen dut. Baina hitz egitea zaila da! Eta hitz egitea garenentzat, gehiago". Boskotea aurrera egiten ari direla sentitzen du.

22. tantora iristea

Ikasketa prozesua bukatzeko zer falta zaien galdetuta, Herreroek ez daki udan zer egingen duen, baina berarentzat "oso garrantzitsuak dira barnetegiak eta AEK. Segituko dut". Bengoetxeak uste du barnetegi batera joan beharra duela. "Kontraesana daukat. Dudak dauzkat. Ikasi nahi dut. Eta, horregatik, barnetegira joan beharko nuke. Baina, ez dakit pauso hori eman nahi dudana. Zer egin? Eta nola?" Zelaiak uste du udan ikastaroren bat egitea ona dela, "baina niretzat oso zaila, lotuta nago".

Aldazek ez du presarik, "pixkanaka-pixkanaka, auskalo noiz.

"KONFIANTZA HARTZEA KOSTATZEN ARI ZAIT, BAINA AURRERA EGITEN ARI NAIZ"

Baina hemendik aurrera ez dut sekula utziko. Nik aurrera segituko dut". Alemanyk esan duenez, "egoera errealetan euskara esperimentatzea faltatzen zait; ez bakarrik klase barruan, etxean, egunero". Bere iritziz "euskaldunagoak diren herrietan euskaldun berrientzat errazagoa da. Baina hori hemen praktikatzeko arrazoi bat da".

Botilerorik?

Euskara ikasteko, praktikatzeko prozesuan ondoan euskaldunik ba ote duten galdetuta, baietz esan dute. Aldazek koadrilan euskaldunak ditu, baina ez da erabiltzen. "Ohitura da bizpahiru pertsona gaztelaniaz, bada, beti-beti gaztelaniaz. Eta ni ere haiekin. Bi esaldi eta blokeatuta nago, utzi eta gaztelaniaz segitzen dut". Hala ere, "espero du hemendik aurrera, heldu den urtean agian, batzuekin hitz egitea".

Euskaldunez inguratuta dago Bengoetxea. Bikoteari kostatzen zaiola esan du. Seme-alabei beti euskaraz hitz egiteko eskatu zien. "Betik euskaraz hasten gara, baina hirugarren edo laugarren esaldian ta-ta-ta hasten naiz eta gaztelaniara pasatzen naiz". Aldea dago, ikasi du, lehen harreman guztia gaztelaniaz zelako. Urdiainen familia du eta dena

euskaraz hitz egiten dute. Esan duenez, haiek elkarrekin hitz egiten ari direnean "pixkanaka ulertzen dut". Ikaskideek lorpen horregatik zoriondu dute. Gehiago praktikatu nahiko luke. Bestalde, Alemanyk hemen dituen ezagunen erdiak euskaldunak dira, "edo moldatzen dira". Lagun euskaldunak ditu, esate baterako, Mutrikun edo Iruñean. "Batzuetan esaten diet: euskaraz hitz egin, mesedez. Baina, Bengoetxea bezala, hiruzpalau esaldi eta gaztelaniara aldatzen gara".

Herreroen etxekoak euskaldunak dira, "ni naiz arazoa. Baina ikasten ari naiz, pixkanaka konpontzeko". Azaldu duenez, koadrilako emakumezkoak dira bakarrik euskaldunak. Etxekoek euskaraz hitz egiten dutela azaldu du Zelaiak. "Emaztea tenkorra da eta hitz egiten du. Baina niri asko kostatzen zait" Semeekin ere euskaraz hitz egiten saiatzen da, baina haien pazientziaren arabera izaten da emaitza. Koadrilan jende askok badaki.

"BAINA HEMENDIK AURRERA EZ DIOT IKASTEARI SEKULA UTZIKO. NIK AURRERA SEGITUKO DUT"

"Giroa badugu, baina kostatzen zait euskaraz hitz egitea".

Euskara ikasita, zer egingen duzu gustura?

Ikas prozesua despeditu ondoren Zelaia gustura ariko da jendearekin hitz egiten, erosketak euskaraz egiten. "Eta bertsolariak ulertu nahi nituzke. Askok gustatuko litzaidake, baina orain ezin dut". Martxoaren 18an Jon Maiaren Altsasuko emanaldia ikusten egon zen: "pixka bat harrapatu nuen". Zelaia bezala, Aldazen asmoa "beti-beti" izan da bertsolari txapelketara joan eta ulertzea. "Niretzat onena izango zen". Irakurtzea eta abestiak ulertzea nahiko luke. "Gainera, nire familiaren parte bat euskalduna da. Urtero egun batean elkartzen gara eta abesten bukatzen dugu. Haiekin kantatu eta hitz egitea gauzarik handiena litzateke". Alemanyk abestien letrak ulertu nahi lituzke, "batez ere Xabier Leterenak. Horrekin batera, Joseba Sarrionaindia ulertzea. Bere liburu asko irakurri ditut, baina katalanez edo gaztelaniaz. Nire helburua da Moroak gara behelaino artean liburu irakurtzea".

Herreroen lehen pausoa izan da ETBn *Herri txiki, infernu handi* saioa ikustea, "eta, barrez, familiarekin, ongi, gustura gaudu. Horrela segitu nahi dut". Bengoetxeak, berriz, hitz egin nahiko luke. "Ikastolan, kooperatiban bilerak eta euskara ez nekien bakarra ni nintzen, jo. Horregatik, nik hitz egin nahiko nuke, beste pertsonak nigatik euskaraz segitzeko, ez pasatzeko gaztelaniara". Horrekin trauma modukoa daukala esan du.

Bukatu dira galderak. Argazki saiorako grabagailua itzaltzeaz zela "klaseko azkarrak" esan du ikaskide batek egunero jipoi batekin mehatxatzen duela. "Argitaratu ezazu!" Irakurritakoa irakurritakoa, irakurleari utziko diogu zein den zein asmatzen. Barre algaren artean beste gauza batzuk ere esan dituzte, baina ezin dira hona ekarri. Euskaltegian gelditu da boskotea Edurne Ruiz Iragi irakaslearekin, euskara ikasten. Hitzekin. Haiegi egin dakiekeen aitortza handiena euskaraz hitz egitea da. Beraien ikaste prozesuan bidelagunak izan. Euskaraz hitz egiteko bost pertsona gehiago ditugulako aurki. Eskerrik asko.



Ikasleak irakaslea arbelan idazten ari denari adi begiratzen.



Aniztasun gelako seikotea Korrikarako petoak prestatzen. ANDRA MARI IKASTOLA



Hitzekin. Hitzarekin eta ekinarekin ikasten dute ikasleek. ANDRA MARI IKASTOLA

Aniztasun gelek Korrikan parte hartuko dute

D ereduko sei ikastetxeko behar berezietako ikasleak, profesionalak eta familiak asteartean, 17:24ean, 1291. kilometroa laster egingen dute Azantzán. Aniztasun funtzionala duten ikasleak gainontzekoekin batera ikasteko bitartekoa dira gelok

Alfredo Alvaro Igoa SAKANA

Berako Ricardo Barojan eta Toki Ona ikastetxeetan, Iruñeko Hegoalde eta Iturráma ikastetxeetan, Sarrigurengo institutuan eta Etxarri Aranazko Andra Mari ikastolan daude D ereduko gela alternatiboak. Andra Mari ikastolan 2014-2015 ikasturtetik dago laguntza gela hori zabalik. Haren tutorea da Aiora Barandiaran Arrese. "Garai hartan oso gela gutxi zeuden. Baina Hezkuntza Departamentuak apustu handia egin du aniztasun funtzionala duten ikasleak beste ikasle guztiarekin batera euren herrietako ikastetxeetan egoteko gela berriak irekiaz eta inklusioa bultzatuz. Gelen loraldi bat izan da eta 18 edo 19 gela daude gaur egun", azaldu du Barandiaranek.

Tutoreak azaldu duenez, "azken finean ikastetxe bat gizartearen antzera, lorategi bat dela esan genezake, eta lorategi bat eder egingen duena bertan dauden landareak eta landare horien zaintza izan ohi dira. Lorategi ede-

rroga izanen da zenbat eta landare mota gehiago eduki eta landare horiek zenbat eta lore gehiago izan". Gizartean ere gauza bera gertatzen dela gaineratu du, "denak desberdinak baina denak bizidunak eta denak beharrezkoak gara".

Inklusioa

Ikastolan "lorenzaintza" hori nola egiten duten galdetuta, Barandiaranek azaldu du Andra Mari ikastolan behar berezietako sei ikasle dituztela DBHn. Tutoreak zehaztu duenez, "Nafarroan DBHko laguntza gela oso gutxi daude". Ikastolako sei ikasle horiekin bi zaintzaile eta bi pedagogoterapeuta egoten direla. "Ikasle bakoitzak bere erreferentziatzko

"HORRELA IKASTOLAN ETA HERRIAN NORMALTASUNA ETA ABERASTASUNA SUSTATZEN DA"

gela bat du, han daude beraien ikaskideak eta lagunak. Landu behar den gaiaren arabera ikasleekin gelara joan dira, baina beste materia batzuk laguntza gela ikasiko dituzte", argitu du Barandiaranek.

Halako gelak aniztasun funtzionala duten ikasleendako onuragarriak direla azpimarratu du Barandiaranek: "ikasleak behar berezietarako ikastetxe batera joan beharrean, beraien ikastetxera joaten dira eta beraien herrian gelditzen dira. Horrela normaltasuna eta aberastasuna sustatzen da". Horregatik, ez du bidezko ikusten zaitasunak dituztenak Iruñerrira joan behar izatea, "Sakanan eta Nafarroan, baliabideak izatea garrantzitsua da", ziurtatu du.

Aldarrikapen km-a

Korrika aitzakia izanen da "askotan itzalean geratzen diren landare horiek eguzkitara ateratzeko eta eguzkiaren argiarekin eta inguruko guztien



Asteartean gainontzeko geletako ikasleekin elkartzen direnerako petoak prest dituzte.

besarkada, txalo eta aipamen politekin guztiak lore koloretsu bihurtzeko". Azantzán asteartean laster egingen duten 1291. km-a, alde batetik, Pirritx, Porrotx eta Marimototsi esker ona azaltzeko izanen da: "hirukote horrek guregatik egiten duen guztiagatik, ekimen asko baitira gure eskubideen alde egin izan dituztenak".

"BEHAR BEREZETAKO 4 ZENTROETATIK 3 A EREDUKOAK DIRA ETA BESTEAN D EREDUKO PLAZA GUTXI DAUDE"

Bestetik, ikasle, profesional eta familia horiek geletatik errepidera salto eginez ere aldarrikapen bat egin nahi dute: "Nafarroan dauden behar berezietako lau zentroetatik hiru gaztelaniaz dira eta batean D ereduko plaza gutxi batzuk daude. Ikastolatik ateratzen diren ikasleak plaza gabe gelditu daitezke. Iruditzen zaigu euskarazko eskaintzak ere tokia izan behar duela zentro horietan". Esker on hori eta aldarrikapenak Korrikan bat egingen dute eta Dereduko aniztasun geletako komunitateak bere "bizipoza korrikalari guztiarekin partekatuzko asmoz" egingen du lasterka.



AGENDA

ZIORDIA

OSTIRALA 1

20:00 Korrika poteoa
22:00 Pikoteo afaria

OLAZTI

OSTIRALA 1

20:30 Poteoa musikaz eta txistorraz lagunduta
22:00 Afari autogestionatuta frontoian
22:00 Bertso afaria Maisuenea Gaztetxeak antolatuta: Saats Karasatorre eta Joanes Illarregi

IGANDEA 3

13:00 Korrika txikia plazan

ALTSASU

OSTIRALA 1

12:15 Korrika txikia Foru plazatik
22:00 Afaria Kukurereka elkartean

ITURMENDI

IGANDEA 3

17:30 Korrika txikia Iturmenditik Bakaikura

BAKAIKU

OSTIRALA 1

18:30 Korrika txikirako pankarta eta peto tailerra

19:30 Pintxo potea: prestatu pintxo eta eraman
20:00 Nerepe abeslaria

IGANDEA 3

17:30 Korrika txikia Iturmenditik Bakaikura
18:30 Txokolatada eta Txan Magoaren ikuskizuna

ETXARRI ARANATZ

OSTIRALA 1

18:30 Kalejira: erraldoiak...
20:30-22:30 Burrenba elektrotzaranga
23:00 DJ Maixa eta Malakias Gaztetxeak antolatuta

IGANDEA 3

10:00 Kotxe kedada Nafarroako Erriberara
Korrika egitera joateko

ARBIZU

OSTIRALA 1

17:00 Haur tailerrak
18:00 Korrika Txikia. Ondoren, txokolatada. Korrikaren ondoren txokolatea

LAKUNTZA

OSTIRALA 1

19:00 Pintxo potea

IGANDEA 3

12:30 Erraldoiak eta Alai dantza taldea

UHARTE ARAKIL

OSTIRALA 1

17:30 Peto tailerra
18:30 Txokolatada
18:30-20:30 Futbito 3x3 txapelketa, pintxo potea eta arropa salmenta

LARUNBATA 2

12:00 Korrika txikia
14:30 Bazkaria elkartean
17:30 Bingoa elkartean
22:00-24:00 Kontzertuak: Shibuya eta Mendikoa taldeak

IHABAR

OSTIRALA 1

17:00 Tailerrak
18:00 Korrika txikia
18:30 Txokolatada
21:30 Afaria

IRURTZUN

OSTIRALA 1

Goizean Korrika txikia eskolan
19:00 Joxe Aldasororen bakarrizketa eta Ane Martijaren kontzertua. Pikuxarreko areto nagusian

ASTEARTEA 5

15:30 Matxaindik Izurdiaga aldera Korrika pasako da. Ondoren, DJ kaktus.

GUAIXE FUNDAZIOAREN KOMUNIKABIDEOK PETOA JANTZIKO DUGU!

BELEIXE IRRATIA

Zuzenean 01:45-07:30

→ Zuzenean 09:00-13:30 Iruñerria
(Euskalerrria Irratia)

→ Sakanako errepikapena 15:00etan




KORRIKA MATERIALAREN ZOKETAN PARTE HARTZEKO:

→ Bideoak, mezuak, audio mezuak,
argazkiak... bidali

→ 661 52 32 45 📞 📧 edo #KorrikaSakanan 📺 📷

→ Irabazleak: www.guaixe.eus, apirilaren 4ean



APIRILAREN 2AN



guaixe.eus

- ➔ Zuzeneko streaming emisioa
- ➔ Zuzeneko kontakizuna, giroa, bitxikeriak, argazkiak...
- ➔ Argazki galeriak




HAR EZAZU GURE LEKUKOA!


Apirilaren 3ra arte ZOKKETA ZABALIK
www.guaixe.eus-en

Noiz? Apirilaren 5ean, 16:08-ean ➔

Non? Oskia pasata 18.km kartela ➔



APIRILAREN 5EAN



ASTEKOA

YOLANDA OLASAGARRE

Herritar izaera

Noiz, nola eta zeren arabera da herrian bizi den lagun bat herritarra, erroldatzeaz eta izaera legalaz aparte. Zenbaitetan sortzen da horri buruzko gogoeta. Ea halako eta halako herritartzat hartzen ote diren, edota beraiek bere burua herritar gisa ikusten ote duten, urte batzuk herrian bizitzen eman ondoren. Agidanez, herritar izate horretan, alderdi desberdinak daude. Alde batetik, zera dugu: norbera nongoa sentitzen den, bere jaioterrikoa izateaz gain, bizi den herriko terra ere kontsideratzen ote den, alegia. Jakina, identitateak ez dira baztertzailak, alegia, bi tokitako batera izan gaitzake-eta, esaterako, Iruñekoa eta Arbuzukoa,aldi berean.

Bistan da, sentitzeari buruz ari garenean norberaren arrazoiak oso barrukoak eta barnekoak direla eta, alde horretatik, arrazoi oso desberdinak izan badirela. Apika, arrazoi horiek ezagutzea urrats garrantzitsua da herritar izaera sentitze aldera, hurrengo pausua emateko abiatzeko modua izan baitaiteke.

NOIZ, NOLA ETA ZEREN ARABERA DA HERRIAN BIZI DEN LAGUN BAT HERRITARRA, ERROLDATZEAZ ETA IZAERA LEGALAZ APARTE

Beste alde batetik, ordea, besteek (alegia, herritarrak diren horiek-edo) nongoak kontsideratzen gaituzten, azaltzeko arrazoiak leudeke. Inguruko lagun talde batean, horren inguruan hizketan aritu ondoren, halako zergatiak aitatu izan dira, esaterako: zenbat urte daramazkien herrian bizitzen, karrikan ibiltzen ote den, tabernetan ibiltzen den edo ez (bat edo batek herritarra izatearenak gibelarekin zerikusia duela ere aitatu izan du, barrezka), erosketak egiten ikusten zaion, herriko toki publikoetan ikusten zaion (elizan, kirol jardueretan, basoan...), herrian kuadrila baduen. Herri euskaldunetan, herritar izaera emateko, euskalduna izatea ere pisuzko arrazoiak dela aitatu dute.

Aipatutako arrazoiak subjektiboak, lausoak, hauskorak eta aldakorak direla jakinda ere, horien baitan justifikatu nahi izaten dira herritar izaera emateko heldulekuak.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutunak asteazkena 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NA zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

HARA ZER DIEN

Aparkatzeko txartela

SAKANAKO GIZARTE ZERBITZUAK
Desgaitasuna dela eta, mugitzeko arazo larriak edo mugikortasun murriztua duten pertsonak bere autoak errazago aparkatzeko xedea du aparkatzeko txartelak. Bizitza independentearen eta irisgarritasunaren printzipioei lotuta dago. Agiri publikoa da, aurreikusitako baldintza batzuk betetzen direnean igortzen dena, ibilgailua behar den tokitik ahalik eta hurbilen uzteko.

Onuradunak dira:

- Desgaitasun maila aitortua duen pertsonak (mugikortasun murriztua edota ikusmen arazo larriak izatea).

- Desgaitasuna duten 3 urtez azpiko haurrak (berrikuntza da hau).

- Sei hilabeteko balioa duen behin-behineko txartela ere lor daiteke, arrazoi humanitarioak tarteko. Mugikortasun urria ofizialki aitortua ez izan baina oso muturreko eritasun edo patologiarekin zerikusia duenean. Hau osasun etxeko gizarte langileak kudeatzen du.

Desgaitasuna duten pertsonendako aparkatzeko txartelaren araudia garatu du Nafarroako Gobernuak berriki, estatu mailan homogeneizatu nahi da eta izaten diren abusu eta iruzurrei aurre egin.

Ibilgailuetan ongi ikusteko toki egokian kokatu beharko

da txartela, ez dute balio fotokopiatuak, eskuz egindakoak, balio datarik ez dutenak... Datu base bat osatuko da, txartelaren benetako baliozkotasuna in situ egiaztatzea ahalbideratuz. Betebeharrak ez badira betetzen, aldi baterako erretira dezakete txartela.

Eskaera norberak egin dezake edo osasun etxe eta

gizarte zerbitzuen bitartez. Bigarren pausua da desgaitasun balorazioa egitea Iruñean; hilabeteak behar ditu prozesuak.

Gure herri eta hiritan maizago ikusten ditugu desgaitasuna dutenendako aparkatzeko tokiak, denon betebeharra da ongi erabiltzea eta beharrezkoa ez dugunok ere bai.



OBJEKTIBOTIK



guaixe
SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus

GK diseinu zerbitzua:

Ainara Santiago Langarika
info@gkomunikazioa.eus
948 564 275 (3 luzapena)
619 821 436
Ainhoa Etxeberria Pikabea
gk@gkomunikazioa.eus
618 640 056

Administrazioa:

Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Zuzentzailea:

Pabli Flores Lazkoz

Kolaboratzailea:

Iñaki Rubio Mendoza

Lege gordailua: NA-633/1995

Tirada: 3.200

Erredakzio burua:

Alfredo Alvaro Igoa
guaixe@guaixe.eus

Erredakzioa:

Maider Betelu Ganboa
kirolak@guaixe.eus
eta Erkuden Ruiz Barroso
kultura@guaixe.eus

Maketatzailea:

Irene Trecet Obeso
maketazioa@guaixe.eus

Publizitatea:

Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus

Koordinatzailea:

Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

ARGITARATZAILEA:

Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275
618 882 675

LAGUNTZAILEAK

Mank
s a k a n a

BAZKIDEAK



Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernuak

Administrazioan euskaraz hizketatzeko

Kontseiluak "herritarrak ez gutxietsi, eskubideak guztiontzat" aldarrikatzeko manifestazioa deitu du maiatzaren 7rako, larunbata, 17:30ean, Iruñeko Antoniutti parketik. Gobernuaren dekretua arreta euskaraz eskaintzeko traba izanen da

SAKANA

Nafarroako administrazioan euskaraz aritzeko eta erantzuna euskaraz jasotzeko eskubidea bermatzeko modu bakarra dago: nafarrei arreta euskaraz eskaintzea, hau da, langile elebidunak hartzea. Hala uste du Euskalgintzaren Kontseiluak. Bere idazkari nagusi Paul Bilbaoek kezka ikusten du gobernuaren asmoa: "herritarren eskubideak erdigunean jartzen baditugu, nekez uler daiteke gobernuak daraman politika, ez dago ulertzerik proposatutako Merezimenduen Dekretua indarrean jartzea". Araudia dagoen moduan onartuz gero, "herritarren eskubideei muzin egin eta bestelako intereseei erantzuten dien araudia indarrean jarriko du". Horregatik, Nafarroako Gobernuari eskatuko diote "nafarrak administrazioan euskaraz aritzea bermatzeko hartu beharreko neurriak eta politikak gara" ditzala.

Euskalgintzaren Kontseiluak manifestazio baten bidez, lehenik eta behin, Nafarroan bere hizkuntza eskubideak aldarrikatzen dituzten eta euskaraz bizi nahi duten herritarrak badaudela erakutsi nahi dute. Eta, bestetik, "geure burua gutxietsia ikusten dugula salatzen, eskubideen kontra jotzen ari direla



Nafarroako euskalgintzako kideak eta Paul Bilbao deialdia egiten. KONTSEILUA

ozen oihukatzen". Horregatik, "gure eskubideen alde" manifestazioan parte hartzea deitu zuen Bilbaoek, "geure eskubideak kontuan hartuko dituen politika indarrean jar dadin eskatzeko. Atzera egitearen aurka, aurrera egitearen alde".

Gobernuak bideratu nahi duen araudi berri horren bidez "Nafarroako administrazioko hainbat lanpostutan ofizialak edo berezkoak ez diren hizkuntzen ezagutza euskararen ezagutzaren gaineratik jartzen da. Ingelesari, alemanari edota frantsesari eus-

karari baino garrantzi handiagoa ematen zaie. Hori eremu mistoan ez da inoiz gertatu" azpimarratu zuen Bilbaoek. Bestelako asmoen aurrean, Kontseiluko buruak bertako eta berezko hizkuntzaren ezagutzaren balorazioa egiteko eskatu zuen. "Tamalez, gobernuak orain auzitegiak onartutakoa ere ezabatu nahi du. Beraz, dekretu berriaren helburua ez da auzitegiak baliogabetutakoari irtenbidea ematea". Horregatik, euskaltzaleen iritziz, "gobernuak asmo osoa du euskal hiztunen eskubideak txokoratzen".

Jasangarritasun teknikari izateko prestakuntza hastear

Bigarren edizioak Plazaola, Bidasoa eta Sakana hartzen ditu. Gazteek astelehenera arte eman dezakete izena

SAKANA

Besteak beste Aralar eta Andia-Urbasa daude Nafarroa Ezagutu Sarean. Nafarroan natura gune babestuak kudeatzen dituzten entitate eta pertsonak biltzen ditu sare horrek. Bestetik, Naturclima dago, Bertiz eta Urbasa-Andiako natur parkeak kudeaketa jasangarria eta klima-aldaketara egokitzea helburu duena. Biek antolatuko dute jasangarritasun teknikari izateko ikastaroa.

Saretik azaldu dutenez, "natura ingurunearen aldaketa dinamika batean murgilduta dago, erabilera tradizionalak atzera egiteagatik, aisialdiko jardueraren presio handiagotatik eta klima aldaketagatik". Sareko kideen iritziz, gune horien kudeaketa jasangarria bermatzeko lanbide profil berri bat behar da: jasangarritasun teknikaria. Berriak "gune horien kudeaketa jasangarria bermatzeko gai izanen dira, natura baliabideak bere lurraldearen ingurura jasangarritasuna sustatuz. Natura guneen egungo eta etorkizuneko erronkei aurre egingo dien profil profesional berria da".

Horregatik, sareak jasangarritasun teknikari izateko aurreko prestakuntza ikastaroa antolatu du. Ikastaroa "lurraldean errotuta dauden gazteei" zuzenduta dago, ingurumeneko, landa ingurune, ingurune soziokulturalako edo enpresako esperientzia edo prestakuntza dutenendako. "Natura guneak ulertzeko ikuspegia eta modua aldatzeko

gogoia duten pertsona aktiboak eta dinamikoak nahi ditugu, lurraldeak jasangarritasunerako eta klima aldaketarako prestakuntza dituen paradigma berri bat ezarri ahal izateko", azaldu dute antolatzaileek. Eta gaineratu dute ikastaroaren metodologia berritzailea izanen dela: "ikasleek proiektu errealek diseinatuko dituzte, zeharkako gaitasunak garatzera behartzen duten egoerak birsortzen dituzten talde funtzioetan lan eginez".

Ikastaroa

Apirilaren 20tik maiatzaren 31ra izanen da, 16:00etatik 19:30era, eta itzulera eta ebaluazio saio pare bat egingen dira garagarriaren lehen astean. Saio gehienak, Iruñeko Nekazaritza eta Basogintzako Ikastetxe Integratuan egingen dira eta beste batzuk lurraldean bertan egingen dira. Izena ematen dutenei %90eko parte hartzea eskatuko zaie. Izena emateko <https://labur.eus/z7bAK> webgunean dagoen galdegiata bete behar da, epea astelehenera despidituko da.

Antolatzaileek ikastaroaren bidez Sakana, Aralar, Plazaola, Bidasoa eta Leurtza natura guneen eraginpeko eremuetara zabaldu nahi dute bere jarduerak. Programak, lurralde horiek iraunkortasunaren eta klima aldaketara egokitzearen inguruan dituzten behar eta arazo errealetan jartzen du arreta, eremu horietako kudeatzaileen eskutik lan eginez.

Utzubar EKOguneko gauzak konpontzeko txokoa mustutzeaz

Mank-en espazio horretan objektuak bota aurretik haiek konpondu eta bigarren bizitza eman nahi zaie

SAKANA

Sakanako Mankomunitateko Hondakin Zerbitzuak jakinarazi duenez, Utzubar EKOgunean konponketa txokoa sortu du. Gauzak konpontzen ikasteko txokoa bigarren bizitza eman

nahi zaie hondatuta dauden objektuei, horrela hondakinak murrizteko eta berrerabilpena sustatzeko. Konponketa Txokoa elkartzaren diren etxe tresnak, jostailuak, bizikletak eta beste konpondu ditzakete. Edo honda-

tutako objektuak berrerabiliz berriak sortu, esaterako: jostailuak, mozzorroak, loreontziak... Tailerrak 20 pertsonen osatutakoak izanen dira. Eta horiek apiril, maiatz, garagartzaro, irail edo lastailean egingen dira; astelehenera ostiralera goiz edo arratsaldean, eta larunbatetan goizez. Informazio gehiago edota hitzordua hartu nahi duenak 900 730 450 telefono zenbakira hots egin edo bidali posta info.hondakinak@sakana-mank.eus helbidera idatzi dezake.

BiLTOKi
TABERNA • JATETXEA

Eguneko menua 11 €

Menu berezia 15 €

Telefono berria: 948 562 348 - Altsasu

Txalaparta
TABERNA

Taberna

948 467 070
Zumalakarregi plaza
ALTSASU

Coworkingerako espazioa sortu dute Utzuganen

Bost pertsonarendako espazioa da. Eskaerak egiteko www.utzugane.eus webgunera jo behar da

SAKANA

Informatikaren eta Internet sarearen hedapen sendoaren ondorioz, lan egiteko modua aldatu da, eta jende askok etxean telelana egiten du. Etxetik lan egin eta beste toki batetik telelanean aritu nahi luketen sakan-darrek dagoeneko badute beste aukera bat: Utzuganeko telelan partekaturako gune berria. Arbizuko Utzubar industrialdean dago Utzugane, Sakanako garapen zentroa. Cederna-Garalur, Sakanako Garapen Agentzia eta Sakanako Enpresarien Elkartearen egoitzak hartzeaz aparte coworking edo telelan partekaturako espazioa hartzen du. Utzuganekoa partekatutako oinarritzko lan espazioa eta erabiltzaileek kudeatutako gunea da. Telelana etxebizitzatik kanpo egiteko eta lana eta bizitza orekatzen laguntzeko espazioa. Erabilera ordutegi malgua du. Gainera, erabiltzaileek bilera gela bat dute eskuragarri.

Sakanako Garapen Agentziak (SGA), udalekin batera, telelaren behar berriari erantzuna emateko Dinabide Coworkinga mustu zuen 2019an, teknologia-rekin ari diren ekintzaileei zu-

zenduta dagoena. Irurtzango Inasa lantegiaren bulego eraikineko espazioa enpresak sortu, sendotu eta hazteko lankidetzarako da. Bertan, coworking espazio bat, bilera gela bat eta lan egiteko hainbat bulego daude, erreprografia, internet, prestakuntza eta mintegietarako gelak eta prototipoak garatzeko tailer baten zerbitzuekin. Haren berri eskaintzen du www.dinabide.com webguneak.

Sakana3CO

SGAk lankidetzan, ezagutzan eta elkarren arteko sorkuntzan oinarritzen den enpresendako gune birtuala sortu du: Sakana3CO. Enpresentzako gune birtual bat, elkarlanean, elkarezagutzan eta elkarsorkuntzan oinarritzen dena. SGAk martxan jarriko duen ekimen horren bidez ibarreko enpresen arteko aukerak eta sorkuntza baliabideak zeintzuk diren ikusteko aukera izanen da. Aurreneko online saioa asteartean izanen da, 09:30ean, eta hizketagaia energia gastuaren arazoa nola konpondu izanen da. Saioan parte hartu nahi dutenek <https://labureus/UFma1> galdegia bete behar dute.

DUELA 25 URTE...



Tren istripua Uharte Arakilen

Izugarrizko hotsa entzun zuten ubertearrek 19:43an. Herritarrak izan ziren tren geltokira iristen lehenak eta zaurituak lagundu zituztenak. Haiek hartu eta Iruñeko ospitalera eraman zituzten. Gerora iritsi ziren suhiltzaileak eta haiek atera zituzten trenean harrapatuta gelditu ziren pertsonak. Hildakoak herriko kamioi batean hartu eta Larrabieta frontoira eraman zituzten. Pixkanaka zaurituen eta hildakoen familiak iritsi ziren. Haiendako edateko eta jateko zerbait prestatu zen, baita laguntza psikologikoa ere.

Ubeldea garbitzeko auzolana egiten ari dira

Larunbatero 09:30ean jarri dute hitzordua eta 10:00etatik 12:00etara aritzen dira ibai bazterrak garbitzen. Auzolanekin udara arte edo segitzeko asmoa dute. Goiko partea garbitzen ari dira; emaria jaistean ibaian sartu eta behekoa garbituko dute

OLATZAGUTIA

Ibaia zikina zegoen lehendik ere, baina abenduaren 10eko uholdea azken hamarkadetakoa handiena izan zen eta hainbat zabor eraman zuen urak, ibai bazterrean gelditu zena. Uhartearren adibideari erreparatuta, olaztiar talde bat ubelde bazterrak garbitzen hasi zen martxoaren 5ean. Eta ordutik larunbatero ari dira ibaira joaten pilatu diren zaborrak jasotzeko.

Lau auzolanetan batez ere plastikoa jaso dute, ibai bazterreko zuhaitzen adarretan zegoena. Uholdeak eramandako baratze-tako traste ugari ere jaso dituzte, ur biltegiak eta ontziak. Txatarra dezente jaso dute ere. Eta opatu dute arropa, aspaldi lurperatuta zeuden hondakinak eta telefono bat. Ubelde bazterretik jasotakoa astelehen goizean Sakanako Mankomunitateko Hondakin Zerbitzuak jasotzen du.

Taldea

Naturarekin kezka duen olaztiar talde batek Olazti Natura whatsapp taldea sortu zuen irailean. Estreinako jarduera gaztainerkin egin zuten. Haiek ontzitan erein eta landarea jaio zenean basoan landatu zituzten. Taldekideak ubeldari erreparatu zioten, eta oso zikina zegoela ikusita zerbait



Olaztiarrek ibai bazterrak garbitzen. OLAZTI NATURA

egitea erabaki zuten. Estreinako auzolanean zazpi edo zortzi pertsona aritu ziren. Hurrengoetan jende gehiago egon da garbiketa lanak egiten 15 eta 20 olaztiar. Eta beti jende desberdina aritu da lanean. Batzuek jarritako ordutegian ezin izaten dute joan eta goizago edo arratsalde aritzen dira garbitzen. Denak ere eskularruekin joaten dira auzolanera. Egiteko lan handia dagoenez, auzolanari hasiera eta akabera orduak jartzea erabaki zuten.

Errota parean hasi ziren eta ibaian gora jo dute hurrengo

larunbatetan. Ez dute ibaiaren ibilgua segitu. Gehien ikusten den tokian Alduia aldean aritu izan dira garbitzen, Ziordirako bidean jende asko ibiltzen baita. Auzolanekin segiko dute: "garbitu duzula uste duzu eta beste aldetik zikinkeria pila ikusten da, batez ere behean". Baina ubeldaren emari handiagatik ez dira uretan sartu. Uraren maila jaisten denean, beheko zaborrak jasoko dituzte. Uda aldera izanen da hori. Taldekideek azaldu dutenez, garbiketak balio izan die txoko politikak ezagutzeko ere.

AGAk gazteen premien diagnosis aurkeztuko du

Herriko gazteen arazoak zein diren identifikatzeko dinamika martxan jarri zuen Altsasuko Gazte Asanbladak (AGA) 2021ean. Gaur, 18:00etan, Iortia kultur gunean Altsasuko Gazte Asanbladako kideek *Hamaika arazo erro bakarra, gazte langileok lehen lerroa* hitzaldian lortu dituzten ondorio politikoak azalduko dituzte.

Konpost festa bueltan da bi urteko etenaren ondoren

Larunbatean, 11:00etan, Amandrea kaleko auzokonpostagailuan izanen da. Konposta banatuko da. Bestalde, apaingarri den hesia eta iragarki ohol handia mustuko dituzte. Alde batean auzokonpostagailuak nola funtzionatzan duen azalduko duen kartel bat dago. Beste aldean, berriz, Milakolorekoek egindako iragarki-taula dago.

Gaixotasun larriak dituzten 19 presoak askatzeko eskatuera

Osasunaren Nazioarteko Eguna dela eta, Sarek kontzentrazioa deitu du ostegunerako, 19:00etan, Etxarri Aranazko plazan. Haren bidez espetxean larriki gaixo diren pertsonak askatzeko eskatuko du, tartean Jon Gurutz Maiza Artola etxarriarra dago. Salbuespeneko espetxe politika eta haren osasun ondorioak salatu ditu.

Hirigintza plan berrirako beste pauso bat

Udalak Plan Orokor berriaren Lurraldearen Antolamendurako Estrategia eta Eredua izeneko dokumentua onartu du. Etxebizitzak garatzeko lehentasunezko eremuak Arkangoa, Mendizal eta Zelandi izanen dira. Kapitansoron industrialdea aurreikusitako da

ALTSASU

Altsasuko Udala hirigintza plan berria 2018an egiten hasi zen. Plan berria egiteko lehen pausoa Lurraldearen Antolamendurako Estrategia eta Eredua zehaztea izan zen. Jendaurrean jarri eta 63 ekarpen jaso zituen udala. Guztiak aztertu eta batzuk onartu ondoren, aipatu dokumentua behin betiko onartu da. Javier Ollo Martinez alkateak azaldu duenez, hirigintza plana egiteko hurrengo pausoa izanen da "Lurralde Antolaketaren Ereduak markatutako ildo nagusiak kontuan izanda, Altsasuko hirigintza xehetasun guztiekin arautzea izanen da". Ollok argitu duenez, "gauzak ongi, plana hurrengo legegintzaldiaren akabera aldera bukatzea aurreikusitako da".

Herria

Altsasuren hirigintza hazkunde estrategia zehaztuta gelditu da. Neurritzko hazkunde izanen da, egungo herriaren ondoko eremuetan zabalduko da Altsasu etorkizunean, horretarako ezaguturiko eremuek dituzten eremuetan, eta iparraldean dagoen goi tentsioko lineara iritsi gabe. Hazkunde hori ibilgailuendako bi norabide izanen dituen kale batek mugatuko du. Espazio horiek etxeak eraikitzeke sailkapena plan berrian. Udalak lehentasuna eman dio etxebizitzak Arkangoa eta Mendizal eta Zelandin dermioletan eraikitzeari. Bestalde, hilerraren atzean herria zabaltzea baztertu da. Alkateak azaldu duenez, "alternatiba hori ekonomikoki bideragarria da merkatu egoera normal batean, erreserba gisa, hiri garapen partzialak ahalbidetzeko; izan ere, etxebizitzak hartzeko gaitasun egokia dute". Horiek egiteko udalak erabaki du lehentasunezko kudeaketa sistema konpentsaziokoa izanen dela, hau da, lurjabe gehienek sustatuta. Salbuespena interes



Altsasuko ikuspegia Santa Engraziako bidetik. ARTXIBOA

GAUZAK ONGI, HIRIGINTZA PLANA HURRENGO LEGEGINTZALDI AKABERARAKO EGINA

orokorra duten unitateetan izanen dira.

Horretaz aparte, udalak garapen fasean dauden sektoreak bukatzera joko du. Zelandin proposamen bat egin zen 2009an baina hura aldatu egin beharko da eta osasun etxe inguruan eraikiko da. Lezalterako 2004an egindako plana ere aldatu beharko da. Horrekin batera, Altsasuko Udalak etxebizitza babestuak sustatzeko, jabe gisa edo interes orokorra duen aldetik, parte hartzen duen unitateen kudeaketan gidaritza hartuko du, hala, dagoen eskaerari erantzun zuzenaren dioten orubeak izateko. Era berean, honako lan hauek egingo dira: udalerrriak ez dituen lurak erosi eta ekipamenduak gauzatu, ibilgailuen aparkalekuak jarri, egoera txarrean dauden sareak berritu eta bideak eta espazio publikoak berrurbanizatu edo

hobetu irisgarritasun arazoak saihesteko, beti ere, ukitutako erakundeekin batera (Nafarroako Gobernua eta Adif). Bestalde, gaur egungo herria berronertzeko eta berritzeko eraikinen birgaitzea sustatuko du udalak.

Industrialdea

Kapitansoron, A-1 autobia eta NA-1000 errepidearen artean, industrialdea aurreikusitako da. Ollok gogorarazi du hiru industrialdeak kasik beteta daudela eta azaldu duenez, "gobernuak oso positibotzat jo du proposamena, bai udalarendako, bai eskualdearendako. Are gehiago, interesgarria litzateke eremu handiago baten aukera aztertzea, Altsasuk eskaintzen duen trenbide konezioaren aukera kontuan hartuta".

Bestalde, Zangitu baztertu da, gobernuak uko egin diolako eta lur gehienak ibaiaren uholde arriskuko eremuan daudelako. Uholdeak eraginik ez duen eremuan ekonomia jarduerak ezartzeko aukera eremu bat proposatu da. Beste aukera eremu bat okindegi zaharraren eremua da, A-1 autobia ondoan; hirugarren sektoreko jarduera edo ostalaritza erabilera luke.

EH Bildu ez dago estalpearen kudeaketarekin ados

Aurretik premiak ezagutzeko eztabaida sustatu behar zela dio, proiektu guztiak aurkeztea eta aztertzea

ALTSASU

Udalak aukeratutako hiru estalpe proposamenetako baten alde www.altsasu.eus webgunean botoa emateko azken eguna da gaur. Babes handiena duenaren egileak idatziko du proiektua. Altsasuko EH Bilduk azaldu duenez, "frontoira, kiroldegira eta kultur gunera jo gabe, eguraldi txarra dagoenean kalean mota guztietako ekintzak egin daitezkeen gune babestu baten premia aspaldi plazaratu zuen ezker soberanistak". Koalizioa pozik dago Altsasu halako espazio bat izateaz gertuago dagoelako. Baina faltan botoa du "estalpearen propietatei buruzko eztabaida egitea kirol, kultura, ekonomia eta abarrek taldeekin".

Koaliziotik azaldu duenez, "udalak eskatzen zituen betekizunak (gutxienean altuera, Iortia kultur eraikinetik bereiztea) betetzen

dituzten hiru proposamenen artean bozkatzeko ez da parte-hartzea. Galdetu behar zen eraikin berri horren eta plaza osatzen duten eraikinen arteko harremanaz, altueraz, haizea edo euria geldiarazteko itxiturez, azken batean, altsasuarrek aukera guztiak aztertzea". Galdeketa aukeratzen den proiektuan "dituen gabeziak konpontzeko hobekuntzak sartzeko borroka" egingen duela aurreratu du EH Bilduk.

Azkenik, koalizioak bozketrako aukeratutako metodoagatik udaletxean adierazitako "hase-errea" publiko egin du: "gure proposamena Altsasuko herritar guztiak bozkatu ahal izatea da, ez bakarrik teknologia digitala erabiltzen dutenek; beraz, botoa aurrez aurre eman ahal izatea eskatzen dugu, nahiz eta horretarako behar den denbora edo pertsonala egokitu behar den".

SAKANAKO BIRA

IRUNTZUN
MARTIA 2022

IBILBIDE LUZEA: IRTEERA: 06:00
54 Km. | 3.388 mko desnibela

IBILBIDE MOTZA: IRTEERA: 07:30
25,5 Km. | 1.440 mko desnibela

IBILALDI TXIKIA: IRTEERA: 09:30
14 km. | 736 mko desnibela

izena-emateak apirilaren 1etik apirilaren 26ra bitarte

Aurten ezingo da izen-ematea ibilaldien egunean bertan egin!

www.zirkuitua.com
www.iratxoelkartea.com

"Espazio hau topaleku bat da"

AMAIA ZABALETA LAGUNAS TALDE ERAGILEKO KIDEA

Martxoaren 14az geroztik, astelehenero, 16:30etik 18:30era, Ihabarko kontzejuak Jolas Librea Familian ekimena hartzen du

Alfredo Alvaro Igoa ARAKIL

Arakilen 0 eta 12 urte arteko haurrak dituzten familiendako elkargunea sortu dute, familian partekatze eta ibarrean sareak ehuntzeko.

Noiz sortu zen ideia?

Urte akaberan, hotzaren etorrerarekin. Egoera horretan, haurrek ez dute jolasteko eta arratsaldeak pasatzeko leku babesturik.

Nolaz?

Zuhatzun bizi gara, semearekin. Herrian ez dago bere adineko haurrik, eta zaildu egiten da eskolaren ondorengo arratsaldeetan beste familia batzuekin topo egitea. Ibarreko negua oso bakartia eta ez oso komunitarioa izanen zela sentitzen genuen, eta hutsune horiek betetzeko zerbait sortzeko beharra ikusi genuen. Etxean komentatuz, familian sortu zen.

Zergatik jolas librerako espazioa?

Kataluniako herri batetik gatoz. Bertan bizi izan genuen haziera



Eguraldi ona baliatuz Ihabarko plazan jolasten aritu ziren astelehenean. UTZITAKOA

kolektibo bat osatzeko esperientzia, zeinean jarduera nagusia 0 eta 3 urte arteko jolasgune libre bat baitzen. Esperientzia zoragarria izan zen, eta familia askorendako lagungarria izan zen hazkuntzaren inguruko ko-

munitate bat eraiki genuen amatasunaren lehen une haietan. Jolasgunea leku egokitu zen, haurrek askatasunez eta modu seguruan mugitu ahal izan zitezten, eta haien laguntzaileek (%95 amak) elkartzeko une bat

izan zezaten, esperientziak partekatu ahal izateko, espazio publikoetan presente egoteko (hazteko lehen etapak asko bultzatzen baitu etxean mantentzerara) eta, oro har, babesak aurkitzeko. Gure seme-alaben bizitzan bideratutako jarduera asko daude, eta gune asko, joan, utzi eta jarduera bat egin dezaten. Hau desberdina da, topaleku bat da. Espazio bat proposatu nahi da, material batzuk, eta guztion artean, helduak eta haurrak, gure proiektua eraikitzen joatea eta ibarreko familien artean sare bat ehuntzen joatea.

Zer pauso eman dituzue?

Aldameneko emakumezko batek kontzejuaren aurreko batzarre joatera animatu gintuen, eta han ideia aurkeztu genuen. Hasiara batean topaketa Zuhatzuko elkartean egitekoa zen, baina bilera horretan Ihabarko bizilagunek beren espazioan egitea eskaini ziguten, hobeto prestatuta baitago. Kultura zinegotziari eta teknikariari ere asko gustatu zitzaizen ideia, eta laguntza ekonomikoa eskaini ziguten, materialetarako eta zabalkunderako. Hortik aurrera, talde eragilekoak geratu ginen espazioa ezagutzeko eta gauzak zehazteko, elkarrekin zerbait sortzeko gogoa eta ilusioa partekatzeaz gain.

Zein da orain arteko balorazioa?

Oso ona izan da, jende asko etorri zen lehenengo eguna izateko. Eurria ari duenean barruan aritzen gara, bestela, plazan. Beha-

rezkoak izan daitezkeen gauzak ikusteko eta proposamena hobetzen joateko ere balio izan zigun. **Jende gehiagok parte hartzea espero duzue?**

Zenbat eta pertsona gehiagorengana iritsi, orduan eta hobeto, eta guztien artean bailaran hainbeste helduk eta txikik ditugun beharrak jaso eta proiektuari forma eman.

Zer egin behar da horretarako?

Astelehenero, 16:30etik 18:30era, Ihabarko kontzejuaren etxetik pasatzea bakarrik, izena eman beharrik gabe. Egun bat etor daiteke, batzuk, ez dago konpromisorik. Behin proposamena ezagututa, espazioa erabili daiteke edota antolakuntzan parte har daiteke. Gutako batzuekin hitz egin eta antolatzeko modua bilatu besterik ez da egin behar. Egia da proiektuari eusteko zoragarria izango litzatekeela jende gehiagok bat egitea talde eragilearekin. Era berean, bada-kigu familia bakoitzak errealtate desberdinak bizi dituela, eta ez dugu espero denok modu berean inplikatzeari; guretako oso garrantzitsua da bakoitzarekiko errespetua, bakoitzaren erritmoak eta bizi unea.

"BESTE HERRI BATZUETAN GERALEKU BAT ANTOLATZEA GURETAKO LAGUNTZA LITZATEKE"

Gasoleo A ibilgailuentzat
Gasoleo B nekazaritzarako
eta kalefakziorako

www.iparoil.com

IPAR OIL

IPAR OIL

GASOLEO BANAKETA

Sakanako bailara

Tel. 620 143430

Langraiz Oka	Santurtzi	Urnieta
Los Llanos industriagunea 01230 Langraiz Oka (Araba) 945 371358 • 648 250975	Aparkabisa industriagunea 48980 Santurtzi (Bizkaia) 945 371358 • 686 525761	Erratzu industriagunea - 201 20130 Urnieta (Gipuzkoa) 943 330311 • 646 716256

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / kultura@guaixe.eus

OSTIRALA 1

ALTSASU Gazte agenda: Play txapelketa.
18:00ean, Intxostiapunta gazte gunean.

IRURTZUN Antzerki Tailerraren Este pueblo es un sin Dios antzeulanaren emanaldia.
19:00etan, kultur etxean.

LARUNBATA 2

ALTSASU Konpost festa banaketa.
11:00etan, Txioka ondoko konpostagailuan.

ALTSASU Gazte agenda: Dardo arratsaldea.
18:00etan, Intxostiapunta gazte gunean.

ALTSASU Hamaika arazo, erro bakarra. Gazte langileok lehen lerrora! Altsasuko Gazte Asanbladaren hitzaldia.
18:00ean, lortia kultur gunean.

IRURTZUN Antzerki Tailerraren Este pueblo es un sin Dios antzeulanaren emanaldia.
19:00etan, kultur etxean.

ALTSASU Bastardix eta Deserrite taldeen kontzertua.
19:00etan, kultur etxean.

IGANDEA 3

ALTSASU Natura eta Sakanako altxorak Mintzakideren irteera. Basaluzeko dorrea – Batzarramendi – Urdaingo errota.
09:30ean, Irubide jatetxean.

ALTSASU Nire beldurrik

maiteenak familiarteko ikuskizuna.
17:00etan, lortia kultur gunean.

IRURTZUN Antzerki Tailerraren Este pueblo es un sin Dios antzeulanaren emanaldia.
19:00etan, kultur etxean.

ALTSASU Euskal preso eta iheslariak etxera elkarretaratzea.
20:00etan, plazan.

ASTELEHENA 4

ALTSASU Pentsio duinen aldeko elkarretaratzea.
12:00etan, Udaletxearen aurrean.

ALTSASU Elordi García Insausti kazetariaren Imparable hasta la médula liburuaren aurkezpena.
18:00etan, lortia kultur gunean.

ASTEARTEA 5

SAKANA Sakana3co enpresendako gunea. Lehenengo saioa: Nola konpondu energia gastuaren arazoa?
09:30ean, online.

ASTEAZKENA 6

ETXARRI ARANATZ Osasunako jokalariekin solasaldia.
Osasuna Fundazioak antolatuta.



ALTSASU Uharteko Zentroaren Uholdeak: X hau ez da okupatzen... erakusketa.

Apirilaren 28ra arte. Astelehenetik ostiralera 17:30etik 20:00etara, larunbatetan ikuskizuna baino ordu bat lehenago eta igandetan 16:00etatik 20:30era. lortia kultur guneko erakusketa aretoan.

17:30ean, kultur etxean.

ETXARRI Arakilgo emakumezkoen topaketa.
18:00etan, kontzeju etxean.

OSTEGUNA 7

ARBIZU Tipularen sehaska kantak film dokumentalaren emanaldia.
18:30ean, udaletxean.

ALTSASU Osasunaren Nazioarteko Eguna: Orain Jon Gurutz kontzentrazioa. Larriki gaixo dauden presoak etxera!
Sarek antolatuta.
19:00etan, plazan.

ZINEMA

ALTSASU

IORTIA KULTUR GUNEKO ARETO NAGUSIAN

La muerte en el Nilo gaurkotasunezko filmaren emanaldia
Ostirala 1: 19:00
Igandea 3: 19:30

Código emperador gaurkotasunezko filmaren emanaldia
Osteguna 7: 19:00

IORTIA KULTUR GUNEKO ARETO TXIKIAN

La peor persona del mundo filmaren emanaldia
Igandea 3: 19:30

Apai kartzela film dokumentalaren emanaldia
Osteguna 7: 19:00

Bazkide ZOZ keta

MARTXOKO SARIDUNAK

1. SARIA
Mikel Galartza Mendia (Urdaian)

2. eta 3. SARIAK
Arantxa Garziandia Imaz (Etxarri Aranatz)
Aitziber Elkarte (Urdaian)
Juanxo Madariaga Orbea (Egiarreta)

lacturale
garteazulo
guaixe fundazioa

ZORION AGURRAK



Alain
Zorionak Alain!! Ongi ospatu zure eguna eta asko disfrutatu zure 10. Urtebetetzean. Maite zaitugu!!!



June
"Zorionak poxpolin!! Sarri 5 urte beteko ttuzu eta baakigu oso txintxu eta langill ioten zala ikastolan, oso ongi! Pozik ospatuko degu. Zu fameliye"



Aratz
Zorionak Aratz! Dagoeneko 7 urte! Besarkada handi bat Lakuntzako eta Altsasuko familiaren partetik!



OROIGARRIA



Jesus Marin Gorriti

III. urteurrena

(Uharte Arakilen hil zen 2019ko martxoaren 27an)



Urak dakarrena urak daroa,
zuk emandakoa gurekin gelditzen da
Beti izango zara gure bihotzetan

Etxekoak

ESKELA



Elvira Petriati Goñi

Ahazten ez dena
ez da inoin hiltzen.

Muxu haundi bat
Aitzelai - Karasatorre familiaren partetik

ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75
edo eskelak@guaixe.eus

- ▶ Eskelen tarifak: 50,82 € / 96,80 € / 130,68 €
prezio hauek BEZa barne dute.
- ▶ Bazkideek % 10eko deskontua dute.
- ▶ Eskelak jasotzeko azken eguna: Osteguna goizeko 11:00k baino lehen.

IZARRA
HEMEN, ZURE ONDOAN
AGUÁ, A TU LADO

«Bizitzan badira une batzuk
zeinetan norbait
ondoan behar dugun»

BEILATOKIAK

ALTSASU **ETXARRI ARANATZ**
Santa Cruz, 6 Nagusia, 2

948 05 90 90 · www.izarratanatorio.com

JAIOTZAK

- **Eki San Miguel Garatea**, martxoaren 23an Altsasun

HERIOTZAK

- **Teodora Garabieta Galarza**, martxoaren 24an Altsasun
- **Francisca Urriza Garcia**, martxoaren 24an Etxeberrin
- **Pedro Mari Razkin Iturralde**, martxoaren 26an Dorraon
- **Maria Antonia Razkin Iturralde**, martxoaren 28an Dorraon
- **Teresa Areta Larrea**, martxoaren 30ean Lakuntzan

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.

iragarki laburrak .eus

Hemen eta online

iragarki laburrak .eus

IRAGARKI SAILKATUAK

LANA/NEGOZIOAK

LAN ESKAERA

Aste bukaeretan, adineko jendea zaintzeko eskeintzen naiz: Uztaila eta abuztu osoan ere ahaliko nuke. Izaskun dut izena, hauxe nire tfno zbkia. 653998035. Eskerrik asko.

OHARRAK

Orreagako guduaren omenezko monumentuaren aldeko ekimena:

Euskaldunek frankoen armada garaitu zuen 778an. Orreaga fundazioak garaipen haren historia memoria berreskuratu nahi du. Horretarako Orreagan Patxi Aldunate eskultorearen "Populus Vasconiae" eskultura jarri nahi dute. Hura gin eta jartzeko daru bil keta egiten hasi dira. 40.000 euro jasa nahi dituzte maiatzaren 31rako. Diru ekarpenak ES57 3008 0190 6846 1964 5924 edo ES35 3 0 3 5 0 1 3 9 7 1 1390021185 kontu korrontean egin daitezke. Txartelarekin ere ordaindu daiteke www.orreagamontentua.eus webgunearen bidez. Han dago ekimenari buruzko informazio guztia.

Olaztiko Udan Euskaraz kanpainen izen emateko epea zabalik: D edo B ereduan ikasten dauden eta 2017. urtean jaiotakoak eta LH 6. mailara arteko haurrei zuzendua. Beste ereduak taldeak osatzeko, gutxienez 7 haurrek eman beharko dute izena. Kanpaina

ekainaren 27tik uztailaren 21era izango da biak barne. Tarifa 35 euro haur bakoitzeko, bi anai-arreba edo gehiago dituzten familiek guztira 58 euro ordainduko dituzte. Ordainzeko salbuespenak, onartuak izateko irizpideak, kanpainaren araudia etab www.olazti.com web-orrian irakurri daiteke. Izena ematea eta ordainketa 948 012 012 tfnora deituz egin behar da apirilaren 13ra arte.

Elkartasun azokaren antolaketan parte hartu nahi duzu? Apirilaren 10ean Altsasuko Iortia plazan (edo Burunda pilotalekuan) egingo den azokan salmenta, sentsibilizazioa, jolasak, etab izango direnez Mankomunitateko Anitzartean Inmigratio zerbitzutik jendea antolaketan parte hartzera animatu nahi dute, izena eman nahi baduzu 648 070 710 tfnora deitu edo anitzartean@gmail.com emailera. Beste mundu bat posible delako, parte hartu!

Auzolana Bakaikun: Bakaikuko Udalak apirilaren 9an auzolana egingo du. Iturriak konpondu eta txukunduko dituzte egun horretan. Izena emateko udalxetik pasa edo www.bakaiku.eus web orriaren bidez egin.

Konposta eskuragai: Sakanako Mankomunitatearen Hondakin Zerbitzuak jakinarazi du edonor har dezakeela konpost Arbizuko UtzubarEKOguneko konpost

plantatik. Astegunetan 08:00etatik 15:00etara joan daiteke. Nondik hartu jakiteko zerbitzuaren bulegotik pasa behar da. Zakuak eramatea gomendatzen da. Konpost gurdikadak ere eraman daitezke.

Sakanako Mankomunitatearen Euskaraz zerbitzuko dirulaguntzak:

Euskaltegiandako, UEUn ikastaroak egin dituztenendako, euskara hutsez udalekuetara joan direndako, euskara ikasten daudenendako eta Errotuluak (dendetan etab) euskaraz jarri dutenendako dirulaguntza deialdi ezberdin hauek eskaraz aurkezteko epea zabalik dago. Eskabide guztiak Mankomunitatearen Lakuntzako egoitzan edo egoitza elektronikoen bidez aurkeztu behar dira. Ez dira posta elektronikoen bidez jasotako eskabideak aintzat hartuko.

Bertso Udalekuetan izen emateko epea zabalik: apirilaren 7ko 12:00ak arte. Argibide gehiago (Txandak, taldeak...) 943 694 129 tfnoran (astelehentik ostiralera, 10:30etik 13:30era) edota idatzi aisialdia@bertsozale.eus helbidera.

iragarki@guaixe.eus

www.iragarkilaburrak.eus

IRACHE
tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

☎ 948 19 70 70

📧 @Grupolrache

📌 Grupolrache

🌐 www.tanatoriosirache.es

Nafarroako urteko atleta

ATLETISMOA Asteazkenean Nafarroako Atletismo Gala ospatu zen. Bertan 30 aitortza egin ziren, eta tartean June Kintana disko jaurtizailer bakaikuarra eta Asier Martinez korrikalari iruindarra Nafarroako urteko atletak izendatu zituzten. Kintanak ezin izan zuen galan egon, Leonen baitago, eta izendapena eskertzeko bideoa bidali zuen.



UTZITAKOA

Irurtzungo Pilota Txapelketak 30 urte bete ditu

PILOTA Asteburuan jardunaldi bikoitza hartuko du Bi Aizpek. Aurten klubaren arteko txapelketa izango da

Abian da XXX. Irurtzungo Pilota Txapelketa. Irurtzun klubak 30 urte daramatza pilota sustatzen eta goi mailako pilotariak trebatzen. Miguel Beraza Loidi presidentea azaldu duenez, aurten klubaren arteko txapelketa izango da Irurtzungo, bi modalitateetan: lau eta erdia eta binaka. Betiko moduan, afizionatu mailako pilotari onenak lehiatuko dira txapelketa bateranoan.

Asteburuko menua

Ostiralean, 19:00etan txapelketa-ko atariko hartuko du Bi Aizpe

pilotalekuak, 19:00etan. Lau eta erdia Minguezek (Errioxa B) Astiz (Buruzgain) izango du aurkari, eta binaka Lara-M. Garciak (Errioxa B) Iriarte-Sarasaren (Buruzgain) kontra jokatu dute.

Larunbatean Beti Onak eta EPLE Renteria klubaren arteko norgehiagokak hartuko ditu Bi Aizpek, 11:15ean. Lau eta erdia Jamar (Beti Onak) Etxezarretaren (EPLE Renteria) kontra ariko da eta binaka Barbajero-Telleteak (Beti Onak) Urmeneta-Aranguren (EPLE Renteria) izanen dituzte aurkari.



XOTA

Xota, Nafarroako txapelketa

ARETO FUTBOLA Igandean emakumezkoen jubenil mailako Nafarroako Kopako finala jokatu zuten Xotak eta Olitek Cintruenigon. Anek Xota aurreratu zuen eta irurtzundarrek gol aukera gehiago izan zituzten, baina gehiegi barkatu zuten, Olitek bana berdindu baitzuen. Lehia borrokatuan, partida bukatzeko 30 segundoren faltan lortu zuen garaipena Olitek.

Munduko onenak Sakanatik pasako dira

TXIRRINDULARITZA Euskal Herriko Itzulia asteartean sartuko da Sakanara, 12:45ak inguruan, Zuarratetik, eta Etxarri Aranaztik Lizarragako porturantz igoko da. Igor Arrieta eta Gorka Izagirre dira onenen artean lehiatuko diren txirrindulari sakandarrak

Maidar Betelu Ganboa SAKANA Hondarribiatik abiatuko da, astelehenean, 61. Euskal Herriko Itzulia, 7,5 kilometroko erlojupekoarekin. UCI World Tour kategoriako munduko talderik onenen alboan UCI Pro Team talde xumeagoak arituko dira, Jorge Azanzaren Euskaltel-Euskadi, Rural Kutxa-Seguros RGA edo Kern Pharma talde euskaldunak, esaterako.

Tamalez Itzuliak ez du Primoz Roglicen eta Tadej Pogacarren arteko lehia hartuko, Pogacar ez baita arituko, baina horrek ez du esan nahi ikuskizuna egongo ez denik, Roglic, Alaphilippe, Evenepoel, Pello Bilbao, Enric Mas... faboritoen zerrenda luzea baita. Sakandarrei dagokienez, bi txirrindulari izango ditugu tropelean: aurten Kern Pharma taldearekin profesional mailan debutatu duen Igor Arrieta eta aurten Movistarrera itzuli den Gorka Izagirre. Imanol Erbiti Ronde van Vlaanderenen lehiatuko da igandean.

Arrieta eta Izagirre

Kern Pharmatik azaldu dutenez, Arrietak oso ongi prestatu du Itzulia-Sierra Nevada egon da kontzentratuta-, eta sorpresaren bat emateko gai izango ote den da zale askoren jakinmina, O



Imanol Erbiti ez da Itzulian ariko. Flandiako Klasikoetan ari da lehiatzen. MOVISTAR

Gran Camiñon lasterketako gazte onena izan eta gero. Gorka Izagirrer lanaren Enric Mas taldeburua laguntzea izanen da, eta aukeraren bat izanez gero, aprobetxatzea.

Asteartean, 12.15ean

Astearteko etapa Leitzan hasiko da, 12:15ean, eta Vianan bukatu. Itzuliko etaparik luzeena da (207,9 km), eta Sakanan Zuarratetik sartuko da, 12:45 inguru. Ondoren, tropelak Etxarri Aranazteraino (13:25) egingo du aurrera, eta Etxarritik Lizarragako bidea

(13:31) hartuko du, Lizarragako portua igo (13:43) eta Lizarraldean sartzeko. Itzuliko zuzendari tekniko Roberto Laisekaren iritziz, "ihesaldiak osatzeko etapa egokia" izango da.

Sakandarren harrobia, bikain

Kadeteen mailako Tafallako El Caserio Valsay Trofeoa irabazi zuen Iker Gomezek (Quesos Albeniz) eta jubenilen Antzuolako Uzarragako Igoeran Sakana Groupeko Mikel Uncilla bigarren eta Aimar tadeo hirugarren sailkatu ziren.

Trofeoa Zalduek

FUTBOLA Elomendi futbol txapelketan parte hartzen 37 urte daramatzen Arakilgo Zalduek, eta hasieratik, duela 50 urtetik bertan lehiatzen den Unzitik jokatu zuten Elomendiko 50. Urteurrenako Trofeo bereziko finala, larunbatean, salestarretan. Finala aurreikusitako bezain estu eta borrokatua izan zen, baina, azkenean Zalduek lortu zuen garaipena (3 eta 2).



UTZITAKOA

1. AUTONOMIKOA GIZON.

2. FASEA. 12. JARDUNALDIKO EMAITZA
Lagun Artea - Beti Casedano 1-0

SAILKAPENA

1. MAILA AUTONOMIKOKO JAITSIERA
1 Artajonés 43
10 Lagun Artea 28

HURRENGO JARDUNALDIA

LARUNBATEAN
16:30 Doneztebe - Lagun Artea (I. Indart)

Lagun Artea, mailari euste lanetan

Lakuntzarrek bi garaipen segidan lortu dituzte. Bihar Doneztebe dute aurkari.

1. AUTONOMIKOA EMAK.

2. FASEA. 3. JARDUNALDIKO EMAITZA
Cortes - Altsasu 4-0

SAILKAPENA

1. AUTONOMIKOKO EMAK. MANTENTZEA
1 Lourdes 34
9 Altsasu 1

HURRENGO JARDUNALDIA

IGANDEAN
12:00 Altsasu - Gazte Berriak (Dantzaleku)

Altsasuk Gazte Berriak hartuko du

Seigarren jardunaldiko atzeratutako partida jokatu du Altsasuk.

FUTBOL PREFERENTEA

26. JARDUNALDIKO EMAITZA
Etxarri Aranatz - Ilunberri 1-0

SAILKAPENA

PREFERENTEKO 1. MULTZOA
1 Injerto 63
13 Etxarri Aranatz 26

HURRENGO JARDUNALDIA

IGANDEAN
12:30 Amigó - Etxarri (Amigó)

Etxarri jaitsiera postuetatik atera da

Amigó taldearen kontra puntuak biltzen jarraitu beharra du Etxarrik.

FUTBOL ERREGIONALA

24. JARDUNALDIKO EMAITZA
Altsasu - Gazte Berriak 3-1

SAILKAPENA

ERREGIONAL MAILAKO 3. MULTZOA
1 Aurrera 55
2 Altsasu 52

HURRENGO JARDUNALDIA

IGANDEAN
19:15 V. Aranguren - Altsasu (Aranguren)

Altsasu, garaipenaren bidean aurrera

Altsasuk liderra 3 puntura du eta garaipenaren bidean segi beharra du.

Segurtasuna, guztiaren gaineratik

MENDIA Denboralea iragarri dutenez Altsasuko Mendigoizaleak klubak Hiru Mendi Zerrak martxa maiatzaren 7ra atzeratu du. Sakanako Ibilaldia apirilaren 30ean izango da eta aurten ezingo da probaren egunean izena eman; aurretik egin beharko da

Maidar Betelu Ganboa SAKANA

Altsasuko Mendigoizaleak taldeak guztia prest zuen larunbatean, apirilak 1, Hiru Mendi Zerrak mendia ibilaldi ez lehiakorra martxa jartzeko. Izena ematea martxa onean zihuan, astebururako eguraldi aurreikuspenak zabalitzen hasi zirenera arte. “210 pertsona zeuden izena emanda, baina bat batean jendea deika hasi zen, eguraldi aurreikuspenak eguraldi txarra eta elurra iragartzen zuela eta mendia martxari eutsiko ote genion galdezka. Izena ematean ere geldialdia egon zen, denboralearen iragarpenagatik. Azkenean, mendia martxa maiatzaren 7ra atzeratzea erabaki genuen, mendizaleen segurtasuna bermatzeko. Gurean Urbasa, Altzania eta Aralar mendizerrak igotzen dira, eta larunbatean elur kota 300 edo 400 metroan egongo dela aurreikusten dute. Ez dugu nahi inor erortzea edo istripurik egotea eta egokiena proba atzeratzea dela uste dugu” azaldu du Altsasuko Mendigoizaleaeko Jesus Guineak.

Hiru Mendi Zerrak martxak Altsasuko Gurutzeko edo Alde Zaharreko festekin egingo du bat. Izena emateak zabalik jarraitzen du Zirkuitua eta Mendizaleen webguneetan. “Izena emana dutenek tokia ziurtatuta dute,



Mendizaleak, Sakanako Ibilaldian. Izena ematea zabalik dago.

eta maiatzaren 7an etorri ezin dutenek, izena eman duten webgune edo plataformarekin harremanetan jarri eta dirua itzuliko zaie. Eta, jakina, izena emateak zabalik jarraitzen du” gaineratu du Guineak.

Sakanako Ibilaldia, zabalik

Apirilaren 30ean, Irurtzungo Iratxo Mendi elkarteak antolatutako 31. Sakanako Ibilaldiaren txanda izango da. Hiru ibilbidetako artean aukeratu daiteke: Sakanako Ibilaldi Luzea (54 km, 3.388 metroko desnibel positiboa);

Sakanako Ibilaldi Laburra (25,5 km, 1.440 metroko desnibel positiboa) eta Ibilbide Txikia (14 km, 730 metroko desnibel positiboa). Izena ematea zabalik dago Zirkuitua eta Iratxo elkartearen egunean bertan egin. Azken edizioan, 2019an, 1.416 mendizalek eman zuten izena.

Hiru Mendi Zerrak eta Sakanako Ibilaldia Euskal Herriko eta Nafarroako Zirkuiturako baliagarriak dira.



Joan zen urteko Triku Traila.

MENDI LASTERKETAK Triku Traileko izena ematea gaur zabalduko da

Etxarri Aranazko VIII. Triku Trail mendia lasterketa ekainaren 26an jokatu da. Izena ematea gaur, apirilak 1, ostirala zabalduko da, 20:00etan, Kronoak webgunean. “Izena ematea noiz zabalduko ote genuen, mezu ugari jaso ditugu azkenaldian. Gaur, ostirala, izanen da, arratsaldeko zortzietan. Ordu hori aukeratu dugu korrikalariei izena ematea errazteko, ahalik eta jende gehienak libre izan dezan. Eta arratsaldez lan egiten dutenek ere aukera izan dezaten” azaldu du Triku Traileko Asier Beltzak.

Aurreko urtean ordu bat eta 9 minututan bete ziren antolakuntzak zituen 250 dortsalak. Aurtengo nobedadea da parte hartze kopurua zabaldu dutela. “Probak duen arrakasta ikusita, 400 partaiderendako azpiegitura prestatzea erabaki dugu. Dena den, nahiz eta kopurua zabaldu, norbaitek Triku Trailean parte hartu nahi duela argi badu, izena ematea lehenbailehen egitea gomendatzen diogu, tokia ziurtatzeko” gaineratu du Beltzak.

Herri kirolarien festa Altsasun

HERRI KIROLAK

Altsasuk Nafarroako Herri Kirol Jokoen hirugarren jardunaldia hartu zuen igandean, eta Iñigo Aritza, Andra Mari, Antsoain, Amaiur, Araxes, Igantzi eta Berriozar klubetako taldeek egindako lana ikustera eta herri kirolariak animatzera jende asko hurbildu zen. Bildutako txalo eta animo oihuez lagunduta, lan ederra egin zuten guztiek.





Bukaera arte lehia estua izan zen Arbizuko Duatloian.

Arbizuko Duatloiak Mikel Astiz eta Maialen Egia txapeldun egin zituen

DUATLOIA Pello Osorok eta Maialen Egia irabazi zuten Arbizuko Duatloia, baina Osoro gipuzkoarra izaki, helmugan hirugarren sartu zen Mikel Astizek lortu zuen Nafarroako Distantzia Motzeko Duatloi txapelduna izatea, Maialen Egiaekin batera

Maidar Betelu Ganboa ARBIZU Larunbatean XXIV. Arbizuko Duatloia jokatu zen, Nafarroako duatloi proba bateranoena, aldi berean Nafarroako Distantzia Motzeko Duatloi Txapelketa izan zena. Lasterketa Arbizuko Udalak antolatutako zuen, hainbat babesleren laguntzarekin. 93 partaide zeuden izena emanda, eta horietatik 87k lortu zuten proba bukatzea, horietatik 69 betiko Arbizuko Duatloian.

Duatletek bi aukera zituzten: Arbizuko Duatloia, betiko ibilbidea (8 km korrika-32 km bizikletan-4 km korrika), edo Arbi-

zuko proba herrikoa, aurrekoaren distantzia erdikoa. Erreleboetan parte hartu zuten bikoteek distantzia luzea egin behar izan zuten eta jubenil mailako duatletek distantzia motza.

Larunbatekoa arratsalde eguzkitsua zen, baina haizeak jotzen zuten eta fresko zegoen. Horrek, jakina, bizikletaren tardean izan zuten eragin gehien, haizeak gogor jotzen duenean Lizarragako portua igotzea ez baita makala, are okerrago bitan egin behar bada. Hasieran herrian barna prestatutako zirkuituari bi bira egin zizkieten duatletek, korrika-bira bakarria proba herrikoikoe eta jubenilek- eta segidan Kale Nagusian zegoen Trantsizio Gunean bizikleta hartu eta Lizarragako porturantz jo zuten. Pello Osoro gipuzkoarra (Alusigma) korrikako lehen sektorean aurretik jarri zen, eta trantsizio gunean bigarren

Mikel Astiz Erro ihabardarra (San Juan) izan zen. Eibarko duatleta ikusgarri aritu zen bizikletako 34 kilometroko tarte horretan, orduko 34 kilometroko batezbestekoa egin baitzuen, Astizen orduko 32,9 kilometroko batezbestekoaren ondoan. Hala ere, bizikletako sektorean azkarrena Julen Lopetegi (Alusigma) izan zen, orduko 35 kilometroko batezbestekoarekin. Lopetegik hor hartu zion aurrea Astizi.

Haizeak gogor jo zuen Bizikletako tardea oso gogorra izan zen. Arbizuko kanpinetik

KANPINETIK LIZARRAGAKO KATERA ETA ETXARRITIK ARBIZURA HAIZE ASKO ZEBILEN


Lizarragako kateraino eta Etxarri Aranaztik Arbizurantz haizeak dezente jotzen zuela azaldu zuten duatletek, baina azken 4 kilometroko korrikaldia okerre-na izan zela nabarmendu zuten partaidetako askok.

Sakandarrak ongi

Pello Osorok bizikletan lortutako errenta oso ongi kudeatu zuen eta bakarrik iritsi zen helmugara (1:37:13), bere taldekide Julen Lopetegiri minutu pasatxo aterata (1:38:39). Mikel Astiz ihabardarra hirugarren izan zen (1:41:05), lehen nafarra, eta, hortaz, Nafarroako Distantzia Motzeko Duatloi txapelduna. Sergio Garcia de Eulate altsasuarra Top-Tenean sartu zen, bederatzigarren sailkatu baitzen (1:45:25). Felix Benjumea 25. sailkatu zen (1:52:08), Juan Luis Maiza 37. (1:56:42) eta Jose Ignacio Mikeo 50. (2:05:05).

Emakumezkoetan, Maialen Eliak (San Juan) hasieratik aurrea hartu zuen eta Nafarroako Distantzia Motzeko Duatloi txapelduna alde handiz nagusitu zitzaizen Uxua Idiazabal (2:11:32) eta Beatriz Riezu (2:21:35) taldekideei.

Erreleboetan lau bikote lehia-tu ziren eta Jonathan Unzalu eta Iker Beitia gailendu ziren (1:53:13), eta Arbizuko Duatloi herrikoian Oier Etxeberria (52:22) eta Ainhoa Calleja (1:05:47) izan ziren lehenak. Juan Martinez del Olmo altsasuarra seigarren iritsi zen (1:00:13).



Uxua Idiazabal bigarren sartu zen.



Astiz eta Osoro. N. MAZKIARAN

Astiz, hirutan Nafarroako txapeldun

Mikel Astiz Erro Arbizon egindakoarekin pozik dago. "Azkenaldian justu samar nenbilen. Uste dut denboraldia luze egiten ari zaidala, krosean hasi bainintzen, baina Arbizon gutxi gorabehera nire mailan ibili nintzen, hirugarren sartu eta Nafarroako txapelduna naiz" azaldu du Ihabarko duatletek.

Denboraldi ikusgarria egiten ari da, aurtur jokotutako Nafarroako duatloi txapelketa guztiak, hirurak, irabazi baititu. "Egia esan, aurtur dena oso ongi ateratzen ari zait. Tuterako Nafarroako Duatloi Kros Txapelketa eta Basaburuako Nafarroako Sprint Distantziako Duatloi Txapelketa irabazi nituen, helmugan lehena izanik, eta Arbizuko Distantzia Motzeko Duatloi txapelduna naiz. Maiatzaren 9an Nafarroako Distantzia Luzeko Duatloi Txapelketa jokatu da Vianan, eta laugarren txapela lortzea izugarria litzateke" dio.

Triatloian, aurtur Delta Ebron lehiazteko asmoa du, maiatzaren 14an Iruñeko Halfean aritzeko eta maiatzaren 21ean bukatuko du denboraldia, Aritzalekun. Maiatzaren 28an Antton Zelaia urdiaindarrarekin beste abentura bati ekingo dio: Erromatik Sakanara bizikletan etorri.

"Etxeberriarrak oso pozik daude, ni animatzera joan daitezkelako"

JULEN MARTIJA OLLAKARIZKETA PILOTARIA

PILOTA Altunak eta Martijak Laso eta Imaz dituzte aurkari Binakako final handian. Etxeberrikoak final zaila izango dela argi du, baina ilusio handiz daudela nabarmendu du

Maidar Betelu Ganboa ETXEBERRI

Julen Martija eta Jokin Altuna Binakako final handirako sailkatuko zirela jakin bezain pronto eromena piztu zen Etxeberrin. 2020an Martijak eta Ezkurdiak jokatu eta irabazi zuten finala ateak itxita jokatu zen, pandemiagatik, eta etxeberriarrek Martijaren lehen txapela ezin izan zuten behar bezala ospatu. Aurten, aldiz, igandean Bilboko Bizkaia pilotalekuan egon ahal izango dute, eta Arakildik bi

autobus abiatuko dira, etzi, Altunak eta Martijak Lasoren eta Imazen kontra jokatu duten finalean herriko semea jo eta fuego animatzeko. Martija ere oso pozik dago Binakako bere bigarren finala izango dena "behar bezala" jokatu ahal izango delako, publikoarekin.

Finalerdietako ligaxkan Lasoren eta Imazen kontra jokatu duten partida ahaztu al duzue?

Bai. Partida horretan ez ginen partidaren zentratuta egon. Alde

nahikoarekin irabaziz gero enpresako beste bikote bat (Elezkano-Zabaleta) finalean sartu ahal genuela jakitun ginen, baina ez ginen partidaren sartu, asko kosta zitzaigun. Partida oso txarra egin genuen. Finalerako sailkatuta geundela bagenekien, eta nik uste horrek ez zigula onik egin. Batzuetan gorputza lasaitu egiten da, ez dago tentsio berberarekin, eta nik hori nabaritu nuen, ez nuela presio hori sentitzen, ez beste partida batzuetan

bezala. Horrek kalte egin zidan. Hasieratik ez nengoen eroso, euren abantaila handia hartu zuten eta partida maldan gora jarri zitzaigun. Baina orain hura ahaztu eta beste partida bat dugu aurrean, finala, eta ilusioz gainzeka gaude, topera entrenatzen. Partida gogorra izango dela uste dut, eta ea irabaztea lortzen dugun.

Halako finalerdietan, hainbat gauza jokatu daudenean, partidak aldi berean jokatu beharko lirakeela uste duzu?

Nik uste hobe litzatekeela, baina hori ez dugu guk erabakitzen, ez dago gure esku.

Altunak eta biok txapelketa bikaina egin duzue. Hasieran lesiotik ateratu berri zeunden eta partida batzuetan kili-kolo ibili zineten, baina berehala gorantz egin zenuen. Txapelketa honetan doktoratu zarela dio katedrak.

(Kar, Kar...) Joan zen urtea nahiko txarra izan zen niretako. Eskua ez nuen beste urte batzuetan bezala, eta gaizki pasa nuen. Eskua berreskuratzen nuen, baina hurrengo partidaren berriro ere pilota eskuan sartzen zitzaidan eta horrela ibili nintzen. Asko sufritu nuen. Binakakoa hasterakoan eskua nahiko ongi nuen, baina jokoz oraindik ez nengoen ongi. Hainbeste denbora gaizki egon nintzen, sasoi hartzea kosta egin zitzaidan. Entrenatzen oso gustura nengon, baina lehenengo partidetan kosta egin zitzaidan. Baina Jo-

kin asko lagundut. Harreman oso ona dugu, asko hitz egiten dugu eta bigarren itzulirako jada konfiantza handia lortu genuen. Hori partidetan ikusi zen. Partida oso onak egitea lortu genuen, konfiantzarekin aritzea, eta hori nabaritu da.

Zuen konplizitatea agerikoa da.

Bai, Binakako Txapelketan oso garrantzitsua da zure bikotearekin erlazio ona izatea, eta guk hori aspalditik dugu. Banaka jokatzeko duzunean badakizu bakarrik zaudela, baina Binakakoan bikotea kontuan hartu behar duzu. Altunak eta biok oso ongi ulertzen dugu elkar, eta bikote batek txapelketa ona egiteko hori oso garrantzitsua da.

Igandekoa Binakako zure bigarren finala izango da, 2020an Binakako finala irabazi baitzenuen Ezkurdiarekin. Urte bat lehenago, 2019an, Altunarekin osatu zenuen bikoa eta finalerdietan erori zineten. Altunarendako Binakako bere lehen finala izango da igandekoa. 2019ko arantza kendu nahi al duzue?

Igandeko finala jokatzeko ikaragarriko gogoekin gaude. Finalak beti momentu bereziak dira. Nik zortearen izan dut bat jokatzeko aukera izan dudalako, baina Ezkurdiarekin batera Olaizolaren eta Urrutikoetxearen kontra jokatu genuen final horretan ez zegoen publikorik eta alde horretatik aurtengoa oso desberdina da. 2020an txapela irabaztearekin sekulako poza hartu nuen, ikaragarria izan zen, bai-

"Etxanizen abisua jaso nuenean, ezin nuen sinistu"

AARON ARBIZU ALBERTO ASPEREKIN DEBUTATUKO DUEN PILOTARI ETXARRIARRA

Aaron Arbizu Albertok apirilaren 8an debutatuko du Aspeko atzelari gisa, Irurtzunen. Ezkurdi izango du bikote eta aita ponteko, eta Victor eta Martija izango dira euren arerioak. Profesionala dela jabetzea oraindik kosta egiten zaiola aitortu du.

Ostiralean afizionatuko azken partida jokatu zenuen Irurtzunen. Partida berezia izan zen?

Bai. Irurtzun klubeko Olaetxearekin bikotea osatuta, profesionaletatik erretiratu berri den Bengoetxea VI.a eta Bergera taldekidea izan genituen aurkari. Partida gogorra izan zen, polita, huts gutxikoa. Bengoetxeak erakustaldi bikaina egin zuen, Olaetxea oso fin aritu zen eta Bergerak, puntako afizionatuak, eta nik gogor astindu genuen pilota. Azkenean 22 eta 18 irabazi genuen. Oso gustura jokatu

genuen, eta jende dezente hurbildu zen partidara. Profesionalen debutean frontoiari tamaina hartzeko ongi etorri zitzaidan.

Afizionatuetan palmares polita lortu duzu: aurten Elgoibarko San Anton Torneoa irabazi duzu, eta iaz GRABNI Torneoa eta Zumaiako Dinastia Etxabe Torneoa.

Joan zen urteko udan hasi nintzen nabarmen. Kolpez freskoago nengoen eta nabaritu zen. Lau torneotan sailkatu nintzen finalerako eta horietatik hiru irabazi nituen, aipatutakoak eta Lodosan txapeldunorde izan nintzen.

Betidantik Irurtzun pilota klubean jokatu izan al duzu?

Jaioterrian hasi nintzen, Etxarri Aranatzan, baina gehienek futbolaren alde egin zuten,

eta orduan Altsasuko pilota eskolara joan nintzen. Jubeniletan Irurtzun taldera aldatu nintzen eta gaurdaino. Hemendik aurrera ezingo dut Irurtzun klubeko lagunekin horrenbeste egon eta horrek ere pena ematen dit, ez pentsa.

Irurtzungo presidente Miguel Berazak dio oso langilea zarela eta horregatik egin duzula gora.

Pilotari batzuei txikitatik ikusten omen zaie pilotarako dohain edo ezaugarri bereziren bat. Sekulako eskuinkada, tantoak bukatzeko erraztasuna, jokatzeko postura... Miguelek esan zidan txikitari niri ez ninduela ezaugarri edo ukitu berezirik ikusten, baina lan eta lan, eta borrokatzeagatik iritsi naizela honaino. Borrokatzen lortu dudala gora egitea.



na aurten, publikoarekin, desberdina izango da, lagunak, herriarrak eta familia Bilbon egongo direlako animatzen. Ikusleekin banago urduritasuna ere nabarituko dela, baina ahalik eta lasaien ateratzen saiatuko naiz eta ea irabaztea lortzen dugun.

Aurtengo Binakakoan hirutan jokatu duzue Lasoren eta Imazen kontra. Ligaxkako bi partidak irabazi zenezkietan eta finalerdietakoa galdu. Arerio oso latzak dira, nola planteatuko duzue igandeko finala?

Finala partida garrantzitsuena da. Badakigu partida oso zaila dugula aurretik, eta irabazi nahi badugu oso ondo jokatu beharra dugula. Laso eta Imaz oso indartsu daude, eta nire kasuan hasieratik topera hasi beharko naiz, Lasok aurrean pilota harrapatzen duenean denak bukatzen baititu. Beraz, topera hasi beharko gara, oso zentratuta. Hasiera oso garrantzitsua izango dela uste dut. Laso sekulako txapelketa jokatzeko ari dela argi dago; denboraldi luzea darama ongi jokatzeko. Eta baita Imaz ere. Konfiantzarekin daude, eta finalerdian lortu zuten garaipenak ere konfiantza gehiago emango zien. Baina horrek ez du gugan eraginik izan behar. Oso gustura ari gara entrenatzen, eta ilusioz gainezka joango gara.

Baita etxeberrirak ere. Arakildik bi autobus abiatuko dira Bilbora zu animatzera.

Etxeberrin ere oso pozik daude. Halako herri txikiko pilotari batek final bat jokatzeko ikaragarria



Julen Martijak adierazi du oso gustura ari direla entrenatzen eta finalerako oso gogotsu daudela. ASPE

da euredako. Gainera, aurten finala ikustera joan daitezke, eta oso pozik daude, ilusioa dute. Baita Arakildiko eta Irurtzungo lagunek ere.

Izugarri estimatzen zaituzte: oso jatorra zarela, Unibertsitatean ingeniarietza mekanikoa ikasten ari zarela, pianoa jotzen duzula... Nola moldatzen zara guztia aurrera ateratzeko?

(Kar, kar...) Beti nago zerbait egiten. Aisialdirako tarte gutxi dut, eta nahiago dut horrela.

"LEHEN MINUTUTIK TOPERA HASI BEHARKO DUGULA ARGI DUT; ILUSIOZ GAINEZKA GAUDE"

Irabazi ala galdu, ospatuko duzue, ezta? Egunero ez baita final bat jokatzeko.

Hala da, lan izugarria dago atletik, eta oso zaila da edozein finalera heltzea. Garesti daude. Beraz, irabazi ala galdu, zerbait, ospakizun bat egingo dugu.

Zorte on! Ea zure bigarren txapela Sakanara ekartzerik duzun! Eskerrik asko!



Joanes Bakaikoa. I.PORTO

Bakaikoa Buruz Burukoan

Promozioko Buruz Buruko Txapelketan tokia egin nahi du Promozioko Binakako txapeldunordeak, Joanes Bakaikoa. Bakaikoak eta Elizegik Zabalaren eta Etxeberriaren kontra galdu zuten larunbatean Binakako finala, eta hura ahaztuta, Buruz Buruko atarikoak jokatu du etxarriarrak larunbatean Amurrioren, Alberdiren kontra. Beste atarikoak Zabalak eta Alberdi II.ak jokatu dute, Albeldan.

Asperen deia ez omen zenuen inondik inora espero.

Aspekoekin zenbait entrenamendu saio eginak nituen, eurek hala eskatuta, baina profesionalekin entrenamendu batzuk egitea, hori zen asmo bakarra. Egundean nagusien aurrean entrenamendu bat egitera deitu gintuzten eta han aritu ginen pare bat pilotari afizionatu. Egundean bertan Jokin Etxanizen abisua jaso nuen nire datuak eskatzen. Ezin nuen sinistu. Kontratua sinatzera Eibarrera joan nintzenean esan zidaten nire lana gustatu zitzaizela eta nolabaiteko potentziala ikusten zidatela.

Asperen proposamena berehala onartuko zenuen.

Halako aukera bat ezin da alperrik galdu. Gainera, nire lana –Ramosen elektrikaria– eta pilota profesionala uztartu ahal ditut. Ramosen lanaldi erdian lan egiten utzi didate. Goizez entrenatuko dut eta arratsaldean lan egingo dut. Lanarekin

jarraitzea garrantzitsua da niretzat, bururako gehienbat. Urduria naiz, eta gustukoa dut ordutegi itxiak izatea eta lanpetuta egotea.

Zu igotzeak Irurtzun klubari ere prestigioa emango dio.

Baiez pentsatzen dut. Ni joan naiz, baina Irurtzunek bi atzelari on dauzka. Bergerak bikain jarraitzen du eta Lazkoz ere oso on dator. Pilotari osoa da.

Zer nolako atzelaria zara?

Fisikoki partidak nahiko ongi aguantatzen ditut, nahiko fresko bukatzen dut. Soilik pixka bat lehertuta bukatu izan ditudan bi partida ditut gogoan. Eta eskuinarekin erraz mugitzen dut materiala.

Israel anaiak korrikalari bikaina da eta zu pilotari profesionala. Kiroletarako berezko dohainen bat al duzue?

(Kar, kar...) Nik uste gene horiek amaren aldetik etortzen zaizkigula. Ama afrikarra da, Angolakoa, eta nik uste gorpuzkeran nabaritzen zaigula. Anaiak txikitatik

kiroletarako berezko ezaugarriak zituen: pilotari jokatzeko zuten, futbolera aritzen zen... eta oso ongi. Erraztasun gehiena korrikarako zuten. Bazirudien hegaka joaten zela, zuzen-zuzen. Hari ikustean bazirudien korrika egitea erraza zela, eta gero zu hasten zinen eta... ai ama!

Sekulako debuta jarri dizute Irurtzunen apirilaren 8an, goi mailako partida.

Bai, partida polita, indartsua. Ezkurdiarekin bikotea osatuko dut eta Victor eta Martija ditugu arerio. Niretako hirurak goi mailakoak dira. Eta ni hor tartean. Frontoira sartu arte, ez dut sinisten.

Entrenamenduak egokitu behar izan dituzu?

Gimnasioko prestakuntzan Iker Tainta prestatzaile lesakarrarekin jarraituko dut lanean, Arbizun, berarekin asko hobetu dudalako. Bestalde, Jokin Etxanizek pilotaz asko daki eta zerbait aldatzeko proposatu izan didan bakoitzean, berari kasu egin eta guztia aldatzen zen. Beraz, Etxanize kasu

egiten jarraituko dut, eta Aspekoei entrenamenduetan ariko naiz.

Etxarri Aranatz pilotariaren jaioterria da. Beste profesional bat izatea gauza polita da.

Jendea pozik dago. Hala diote, behintzat. Eta etxean ere bai. Aitak beti esaten zidan noizbait profesionaletarantz iritsiko nintzela. Eta amak esaten zidan ez etsitzeko, borrokatzen jarraitzeko. Eta hara!

Etxarriarrak zure debuta ikustera joango dira?

Herri guztia joango dela, hala esaten dute. Miguel Berazak eskatu zidan nahi nituen sarrerak azkar erreserbatzeko, izena ematea zabaldu eta bi ordutan sarreraren %80 saldu zela. Debutaren aurretik Promesen Buruz Buruko partida bat jokatu da, Elordiren eta Salaberriaren artekoa, eta jaialdira jende asko etorriko da.

Zu ere noizbait halako txapelketetan aritzera iritsiko zara.

(Kar, kar...) Horretarako pilotari gogor eman beharko diot.



Elur Olabide Izquierdo antzezle altsasuarra. UTZITAKOA

"Aktore izatea ospeari loturik dagoela erakutsi digute"

ELUR OLABIDE IZQUIERDO ANTZEZLEA

Gaztetatik datorkio arte eszenikoekiko grina, eta antzerki ikasketak egin ostean, dramaturgiari ekinen dio

Iñaki Rubio Mendoza ALTSASU

Ofizioa pasio bihurtu du Elur Olabide Izquierdo altsasuarrak. Istorioak sortzeko zaletasunak oholtza gainera eraman zuen, eta sorkuntza prozesuan darrai egun ere. Nafarroako Antzerki Eskolan eman zituen lehen pausoak eta Madrilgo Arturo Bernal Nazioarteko Antzerki Eskolan dabil aktore profesional gisa trebatzen. Zuzendari izateko ametsari eutsiz, datorren urtean hasiko ditu ikasketak. **Zergatik aktore?**

Txikitan istorioak asmatzen nintzen, eta asko gustatzen zitzaidan horiek idaztea eta marraztea. 16 urterekin idazteari ekin nion, eta konturatu nintzen zuzendaritza gustatzen zitzaidalda, beraz, argazkilaritza ikastea erabaki

"MOMENTUKO GAUZA DA ANTZERKIA, AURREZ AURREKOA, EGUNERO DESBERDINA"

nuen; film laburrak zuzentzen hasi nintzen. Bestalde, obra bat ondo gidatzeko beharrezkoa sentitu nuen arte eszenikoen jakintza, interpretatzen jakitea hain zuzen, eta Nafarroako Antzerki Eskolan ikastea erabaki nuen. **Aktore izatea gaztetan uste zenuen bezalakoa da?**

Ez. Aktore izatea ospeari loturik dagoela erakutsi digute, eta niri hori ez zitzaidan gustatzen. Antzerki eskolan sartu orduko konturatu nintzen lan handia zegoela atzetik. Aktore ospetsuak edo

telebistan agertzen diren horiek antzezle izateko bide bat besterik ez dira, baina ez bakarra. Niri antzerkia gustatzen zait; agertokian sortzen den magia hori ez da kamera baten aurrean sortzen denaren pareko. Momentuko gauza da antzerkia, aurrez aurrekoa, egunero desberdina.

Beraz, kasualitatez sortu zitzaizun aktore izateko grina?

Betidanik gustatu izan zait, baina izatez lotsatia naizenez kosta egiten zitzaidan hasiera batean oholtza gainera igotzea. Horregatik nahiago nuen kameraren atzean egotea. Familia izan zen interpretaziora bulkatu ninduen arrazoia. Eskerrak kasu egin nien.

Nolakoa da Sakana bezalako eskualde batean zure ametsa egikaritzea?

Txikia da, eta ez dago ikasteko aukerarik. Taldeak ere gutxi dira, eta amateurrak gehienak, aisialdirako eraturikoak. Nik oraindik ez dut bertan profesionalki aritzeko aukerarik izan. Posible da noizbait Sakana bezalako eskualdeetan antzeztea, baina aktore famatuagoak nahiago dituzte, aretoak betetzearren. Hirietan antzoki gehiago daude, eta errazagoa da.

Zer egin behar dute Sakanan antzerkia sustatzeko?

Ibarrean badaude artista dezentte, esaterako, Eva Azpilicueta, Xabi Artieda... Oso aktore onak dira. Oso zaila da gure proiektu bat aurrera eramatea, ez digute kasurik egiten. Ez gaituzte asko ezagutzen, ez gara oso famatuak, beraz, errazagoa da aretoko programatzailearendako interesgarriagoak diren lanak bertaratzea. Tokiko kultur etxeetan ezagutzen dute beren publikoa, eta kontratatzen diren piezak horiei zuzendurik egon ohi dira.

Zer ikasten da antzerki eskola batean?

Antzerki eskolaren arabera da. Metodologia asko daude. Nafarroako Antzerki Eskolan, adibidez, antzerki obrak aztertzen genituen, baita interpretazioa, dantza eta ahotsa landu ere. Ez dago didaktika zehatzik; metodo ezberdinetatik edaten da. Nik interpretatzerakoan barrenak asintzen zizkidan horri heldu nion.

"NIRE ASMOA DA DATORREN IKASTURTEAN ZUZENDARITZA IKASTEA"

Ondoren, Madrilera joan zinen eta bertan keinu antzerkian espezializatzen ari zara.

Bigarren ikasturtea, eta azkena. Lehenengoan ikasi genituen lan aurre espresibo baten nondik norakoak, hau da, oholtzara igo aurretik egin beharrekoak: munda behatzen ikasten da, eta gorputzera ekartzen da hori, mugimendu abstraktuetara. Bigarren ikasturtean estilo ezberdinak ikasten dira, maskara ezberdinak baliaturik.

Nolakoa izaten ari da esperientzia?

Oso polita, baina lan handia egin behar da. Antzerkian eta eskolan dago ardazturik nire bizitza. Oso intentsua da, asko murgiltzen naiz ingurunearen ikerketa horretan. Estiloaren arabera, nire emozioak eta beharrak aldatuz doaz: esaterako, dramak nire gorputzarekin konektatzen nau; komedia, aldiz, jolas basatiagoa da, desioz josia. Ikaragarria da nola eraldatu nauen prozesuak. Oso praktikoa eta aktiboa da eskola hau. Sortzaile izaten ikasten da. Esfortzu fisiko eta psikologiko handia eskatzen du. Sormenean oso murgildurik nago.

Blokeoak ugariak izaten dira?

Aste honetan izan dut bat (barrez). Artzain baten maskara erdi batekin egokitu zitzaidan antzeztea, baina nire energia nabarmenega zen, eta horrek pertsonaia itxuragabetu zuen. Blokeo egoera batean sartu nintzen, norberaren izaeratik aldenitu behar baita maskara.

Nola egiten diezu aurre?

Momentuaren arabera. Aste honetan gertaturikoaren harira, klasetik irten eta ordu erdiz egon nintzen negarrez. Pixkanaka onartzea eta gauzak etengabe frogatzea da kontua, jolastea.

Ikasitakoa Sakanara ekarri duzu zenbait elkarterekin proiektuak eginez, adibidez, Milakolorekin.

Asko gustatu zait. Erronka bat da niretzat, noraino naizen gai iristeko, kontzeptuak azaltzeko... Politia da ikustea hain barnerturik ditudan gauzak gainerako pertsonen nola jasotzen edota jolasten dituzten.

Arte eszenikoei loturiko beste diziplina bat probatu nahi duzu?

Askotan pentsatu dut abeslari izatea, baina ez dut ondo abesten (barrezka). Dantzatzea gustatzen zait, baina ez ikasketa akademiko bat egiteraino. Antzerkian jarraituko nuke. Nire asmoa da datorren ikasturtean zuzendaritza ikastea.

Antzerkiaren familia

Irurtzongo Antzerki Tailerrak lan berria eskainiko du asteburuan: 'Este pueblo es un sin Dios'. Bi urte "gorabeheratsu" ondoren, antzerki absurdoarekin itzuliko dira oholtzara. Tailerra duela hogeitatu sortu zen, herritar talde batek bultzatuta

Erkuden Ruiz Barroso IRURTZUN

Tere Otxoa irurtzundarrak antzerkian interes handia zeukan. Gustatzen zitzaion. Duela hogeitatu bat urte Irurtzongo Udalak zenbait ikastaro antolatatu zituen, eta Patxi Mikeo kultur teknikariak ea baten bat gehiago antolatzea nahi zuten plazaratu zuen: "Eta esan nion: antzerki tailerra?". Eskatu zuten, eta atera zen. "Lehenengo urtean hamar bat pertsona egon ginen, bigarrenan hamasei, hurrengo urteetan igotzen joan zen eta jaitziera urteak izan ziren ere". Aurten hamabi pertsonak osatu dute Irurtzongo antzerki tailerra. Maria Eugenia Barrosok antzerki tailerraren lehenengo antzezlanak ikustera joan zen, "eta izugarri gustatu zitzaidan". Tailerraren bigarren denboraldian izena eman zuen, "eta hemen nago". Gaur, bihar eta etzi, 19:00etan, Irurtzongo kultur etxean, *Este pueblo es un sin Dios* antzezlanak egiten du Irurtzongo antzerki tailerrak.

Ilusio handiarekin hasi ziren tailerrean, gaur egun arte mantentzen duten ilusioa. "Garai horretan Asun Abad zen zuzendaria, eta oso gustura egoten ginen", esan du Otxoak. "Udalaren laguntza dugu, eta merezi ez dugun zuzendari bat daukagu. Marabilla bat da". Gaur egun, Angel Sagues da Irurtzongo antzerki tailerreko zuzendaria. "Lehenengo urteko antzezlanak ikusi nuenean uste nuen aurretik zerbait jakin behar zenuela eta hasieran zerbait txikia eskatu nuen", azaldu du Barrosok, "baina protagonista bat eman zidan". Hasieran ez zuen bere burua gai ikusten, baina "pixkanaka" urtero pertsonaia desberdinak interpretatzea lortu dute.



Irurtzongo Antzerki Tailerreko antzezleak. UTZITAKOIA

"Kasualitatez", tailerrean hasi ziren guztiak emakumeak ziren, eta gerora gizonak sartu ziren. "Urte batean zuzendariak esan zuen: Gizonak behar ditugu!". Orduan sartu ziren Patxi eta Pello. Pelloren heriotza "kolpe

**ANTZEZLANA
AURKEZTEN
DUTENEAN HIRU
EMANALDI EGITEN
DITUZTE**

oso handia" izan zela aitortu dute. "Guztiak bat gara, baina bera arima zen, beti alaitzeko prest zegoen. Zerbait ez zitzagula ateratzen esaten genuenean, berak animatzen gintuen".

Tailerra

"Entsegu asko egiten ditugu, asko okertzen gara, eta barre asko egiten dugu ere". Emanaldiak, aldiz, serio hartzen dituzte, baina publikoak barre egiten badu, helburua bete dutela esan du Otxoak. Bere kasuan, senarra ere tailerrean dago, eta etxean paperak prestatzen dituzte. "Etxean ere lan handia egiten dugu, grabatu, zure ahotsa entzun...". Izan dituzten bi zuzendariak, Asun Abadek eta Angel Saguesek, noraino iritsi daitezkeen ongi dakitela esan du Barrosok: "Zuk agian ez duzu zuren burua zerbait egiteko gai ikusten, eta haiek baietz esaten dizute, mugarra eramaten zaituzte, eta egiten duzu". Bakoitzaren ahalmena ezagutzen dute, eta ateratzen lortzen dute. "Beste pertsonaia batean sartzen zara, ez zara zu, eta barruan dagoen guztia ateratzen da". Antzerkian "libre" dela esan du Otxoak.

Antzerki tailerra dagoeneko tailer bat baino gehiago da. "Familia bat bezalakoa da. Hemen pasatzen dugun denbora, entseguak, kafe bat hartzera goazela...". Denborarekin "asko garatu" da, asko ikasi dute. "Hasiberriak garenean denak berdín hasten gara, zer egin ongi jakin gabe, baina bagaudenez pixka bat kontrolatzen dugunak, beraiei indarra ematen die".

Kamerinoan emanaldia hasteko zain daudenean, aldiz, "zerotik hasiko bagina bezala" dela esan du Barrosok. "Pasatu zitzaidan hasiberri bat zegoela eta ni oso urduri nengoen, eta ez nuen lasaitasuna eta konfiantza transmititzen jakin. Aldeantze izan zen". Egoera horrek markatu zuen, "orain saiatzen naiz urduritasuna ez islatzen". Denborarekin ikasi duten zerbait bada ere. Nerbioak "beti" egon behar dutela gaineratu du.

2020ko martxoaren 19an estreinatu behar zuten *Ver, oler, escuchar* antzezlanak, baina martxoaren 14an koronabirusaren pandemiagatik alarma egoera ezarri zuten, konfinamendua arautuz. "Ez nuen testua hartu nahi, oso gaizki pasa nuen", esan

du Otxoak. "Garai txar bat pasatzen ari nintzen eta antzerkiak izugarri lagundu dit. Oso gogorra izan zen, gainera, garai horretan bazirudielako ez genuela gehiago antzerkira itzuliko...", gaineratu du Barrosok. Azkenean, 2021eko urrian estreinatu zuten lana.

Urtero lan berri bat aurkezten dutenean, hiru saio egiten dituzte ostiralean, larunbatean eta igandean. Gaur, bihar eta etzi dute aurtengo zita. Hirutan sarrerak agortu dira kartela jartzen dute. Irurtzongo publikoak "oso esker onekoa" dela esan dute bi antzezleek. "Gurekin oso eskerdunak dira, denetarik gustatzen zaie". Nahiz eta, Barrosok esan duen, komedia nahiago dutela: "*La Casa de Bernarda Alba* esan ziguten oso ongi egon ginela, oso ongi egon zela, baina ez zitzaiela gustatu oso tristea izan zelako. Baina ezin dugu beti komedia egin!".

Antzezlanak

Antzerki tailerreko parte hartzaileek dramak egitea eskatu ohi dute. "Angelek galdetzen digu gutxi gora behera zer egin nahi dugun". Baina gero "nahi duena" egiten duela esan du Otxoak. "Errespetatzen digu bakoitzak nahi duen parte hartzea, hori bai".

Hogeitatu urteko ibilbidean lan asko egin dituzte, eta gehienak gustukoak izan dituzten arren, badira berriz egiten ez zituztenak ere. Otxoari *Todas a votar* eta *Aquí no paga nadie* antzezlanak, esaterako, "oso absurdoak" iruditu zitzaizkion, "aurtengoa baino gehiago". Barrosori *Tinieblas*, bere lehenengo antzezlanak, asko gustatu zitzaion, "denetarik zeukan, drama, komedia...". La Casa de Bernarda Alba dago bere gustukoaren artean, baita *Las bicicletas no son para el verano* edo *Locuras* ere. "Asko izan dira".

Este pueblo es un sin Dios antzezlanak herri bat aurkezten du, bertako apaizarekin, guardia zibilarekin, alkatearekin, apaizaren amarekin, baita lurretik jaiotzen diren gizakiekin ere. Lekuz kanpo dauden egoerak bizi dituzte herritarrek. "Oso absurdoak da".

Aurkezpenaren astea oso "bizia" dela, baina aldi berean oso azkar pasatzen dela esan dute. Egunean bertan, eszenatokian, "handitzen" dira.

Arte espazioak okupatzen

Ione Rubio Mazkieran altsasuarra da Nafarroan arte garaikidea sustatzeko 'Uholdeak' programaren aurtengo komisarioa. Uharteko Zentroan emakumeen presentzia kale espazioan inguruko lana egin zuen, eta horretan oinarritu du erakusketa eta ekimena

Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU

Algebran X-a oraindik balore jakinik ez duen zenbaki bat da; ekuazioen bidez asmatzen dena. Lengoan, aldiz, X letra izen baten ordekoa da. Jone Rubio

Mazkieran arte historialari altsasuarrak balore berria eman dio, *Uholdeak: X hau ez da okupatzen* proiektuan: "Jolas bat ere bada, anbiguetateari lotuta. Gorputz bat izan daiteke, espazio

bat, etxe bat, herri bat...". Uholdeak programak arte garaikidea Nafarroan zabaltzea eta sustatzea du helburu, herritarrei iristea eta ulertaraztea, eta aurtengo komisarioa edo kuradorea Rubio da. Katalogoan idatzi duen bezala: "X hau dimentsio afektiboa da, nolabait, oroimen indibidual eta, aldi berean, kolektiboak erakartzeko saiakera egiten duena. Topagunea izatea gustatuko litzaidake". Besteak beste, ekimenaren barruan Iortia kultur gunean erakusketa mustu zuen aurreko ostegunean, apirilaren 28ra arte ikusgai egonen dena.

Komisariotza

Uholdeak Uharteko Arte Garaikideko Zentroak Nafarroako Kutxa Fundazioak eta Gizarte-ekintzako La Caixak bultzatutako programa bat da. Hirugarren edizioa da aurtengoa, eta arte garaikidea Iruñerriko ateratzeko asmoarekin, Agoitzen, Altsasun eta Tafallan erakusketa ibiltaria antolatzen dute, baita arte garaikideari lotutako zenbait arte ekimen ere. "Aurreko urtean Uharteko Zentroan ikerketa egonaldi bat egin nuen. Emakumeek espazio publikoetan 1970 eta 1980ko hamarkadetan zuten presentzia ikertu nuen". Horren harira arte garaikideko zentroan interesa piztu zitzaion, "eta kontaktua mantendu genuen". Rubiok ere Berria egunkarian arte kritikak idazten zituen, "eta egun batean Nerea de Diegok esan zidan ea Uholdeak programaren hurrengo komisarioa izan nahi nuen". "Ai ene!" izan zen Rubiok pentsatu zuen lehenengo gauza.

Komisario hitza entzuten, jendeak pentsatzen duen lehenengo gauza poliziaren burua da. "Gainera, hemen Nafarroan ez dago guztiz barneratuta. Bar-

beren kontu korranteak loditzeko. Jende apolitikoa da, aberastea da beren politika bakarra, beren Jainko guztiz ahaltsua. Ongiaren eta gaizkiaren gaineratik daudela uste dute eta ahulenen ahulguneak bilatzen badakite beren onurarako erabiltzeko. Itxura atsegineko pertsonak izan daitezke, lagundu egingo dizutela itxurak egingez, lumatu baizik ez zaituzte egin nahi izango.

Ez daude guztiak aireportuetan emakume errefuxiatu gazteak haien sare zikinetan harrapatzeko zain; ez daude guztiak autopistetako zerbitzuguneetan gerraren izugarrikerietatik ihesi datozenen errugabeen automobiletan dagoen apurra lapurtzeko zain; jauregiaren eta eraikin distiratsuetan ere badaude, noizbait garaitu beharrekotzat eta inbaditzailetzat jo zituzten herrietako kostalde xarmagarrietan eraikitako luxuzko etxeetan, beren fortuna itzelen gordelaku.

Gerrarekin eta gerrak sortzen duen minarekin negozio egiten dute, eta mina jasandakoak, berriz, begirada galduaz, ez dira mesfidati, askatasunaren lurraldera iritsi direla uste dutelako.

Miguel Hernandezek idatzi zuen bezala, arma tristeak, hitzak ez badira.



BAZTERRETIK
JUAN CARLOS LÓPEZ MUGARTZA

Gerra tristeak, maitasuna ez bada helburu

Hilabete baino gehiago pasa da Errusiak Ukraina inbaditu zuenetik. Berriak Europa osoa astindu zuen, guda danborren hotsak etxetik gertu entzun genituelako. Beste leku batzuetan ere gerrak ba omen ziren, eta errefuxiatuak ere bai, baina urrun zeuden.

Duela gutxi arte, asko ziren erasotzailea goraiatzeko zutenak eta beti prest zeuden haren dirua hartzeko; adibidez, pitilinekin eta aluekin benetakoa obsesioa zuten autobus laranja baten jabeak. Egun gutxiren buruan pasa ziren heroia eta abertzale zintzoa zela esatetik, komunista hutsa zela esatera.

Inbasio batzuk salatu eta, aldi berean, beste batzuk ontzat ematen dira. Bakearen uso zuriaren izenean, leku batera armak bidaltzeko prest gaude herriak berak bere aberria defenda ahal dezan, baina beste batzuei etsitzeko eskatzen diegu.

Gero, besteen zorigaitzez aprobetxatzen dakitenak ere badaude, gizagaixoen zorte txarraz baliatzen direnak



Jone Rubio Mazkieran 'Uholdeak' erakusketan.

tzelonan eta Madrilen, agian, ezagunagoa da. Baina hemen ez". Arterari lotutako gai zehatz baten inguruan ikerketa egiten duen pertsona da, "gai hori lantzen dituzten artistak bilatzen dituen". Artelan horiek espazio batera nola egokitu eta erakusketa ulertzeko istorioa osatzen du komisarioak ere, "baita saretzera ere garrantzitsua da". Kuradore hitza erabiltzen du Rubiok: "Ingelerako curator hitzatzik dator, eta ulertzen da erakusketa edo artelan batzuk zaintzen dituen bezala". Programa kuratorialak, beraz, ar-

**KURADOREA
ARTELANAK ZAITZEN
ETA ERAKUSKETAK
PRESTATZEN
DITUENDA DA**

telanak zaintzea eta erakusketak prestatzea datza, baita horren inguruan ikastaroak, emanaldiak eta artea "zabaltzeko eta helarazteko" bestelako jarduerak antolatzea ere.

Uholdeak programaren helburua arte garaikidea herrialdean zabaltzea eta publikora eramatea ez ezik, komisarioaren papera ikustaraztea ere bada azaldu du Rubiok. "Iruñean, esaterako, erakusketa gehienak ez daude komisariatuak. Hau gutxienetarikoa da. Interesgarria da zuk egituratzen dituzulako artisten lanak, elkarrekin zerbait konartzeko". Erakusketa kolektiboetan normalean artelan bat iskin batean egoten dela, eta beste bat bestean, "inolako loturarik gabe" egoten direla azaldu du altsasuarrak. "Jendeak ez du ulertzen".

Uholdeak: X hau ez da okupatzen erakusketa egiteko Rubiok

zenbait artisten lanak interesatzen zitzaizkion. "Pila bat gelditu gara egokitzeke. Nik ikerketaren ildoaren testuak pasatzen nizkien, eta guztiok elkarrekin gelditu ginen dena ehuntzeko". Artelan guztien artean lotura eta istorio bat dago.

Hiru ildo

Hasiera batean hiru ildo nagusi lantzea erabaki zuen Rubiok: gorputza, espazioa eta memoria feminista. Ildo horiekin bat egiten zuten artistak bilatu zituen: "Elkartu ginen, loturak bilatzen egon ginen eta nire interpretazio bat egin dut. Gero erakusketara etortzen denak beste interpretazio bat egin dezake. Baina, gai nagusia, nolabaiteko burujabetza prozesu bat da".

Erakusketan sartzen Mireya Martín Larumberen lana dago. Itxuraz hautsitako bi arrautz handi dira. "Transformazio bati egiten dio erreferentzia. Gorputza dena eta ez dena, orain zarena...". Ione Atenearen lanak memoriari buruz hitz egiten du. "Berak okupatu zuen etxe batean aurkitu zituen objektuei buruz hitz egiten du. Horietan aurkitu zuen beste pertsonabatzen bizitza, eta, azkenean, pertsona horiek frankismo garaian bestelako mundu bat sortu zuten. Ihespuntuak aurkitu zituzten". Etxe horretan aurkitutako zenbait objektu eta filma ikus daitezke erakusketan.

Ione Atenearen instalazioa Andrea Ganuzaren lanarekin lotzea "interesgarria" dela esan du Rubiok. Mezu indartsuak helarazten dituzten kartelak aurkeztu ditu artistak. "Kasu honetan ihespuntua nahiko kartatikoa da", eta kontrastea egiten du Celia Eslavaren ahoekin. Zorutik zintzilik dauden ahoak dira, "berak emakumeen ahoen moldeak egin zituzten, batzuk jazarpena jaso zuten emakumeenak dira". Arte lan batek besteari hitz egiten dio. Ahoen ondoan portzalenazko zibak, tabak eta abar daude. "Jostailuek txikitatik jasozten ditugun normatibitate arauai eta estereotipoei erreferentzia egiten die". Erakusketara amaitzeko Aizpea de Atxaren hitzak daude: "Azken esaldiak argi uzten du: Bizi naizen tokian formarik gabeko pertsonak zailtasunez aurkituko dute toki bat".

"Badirudi erakusketara bat egitea hilabete bateko gauza dela, baina urte bat eman dut honetan



Sutan taldeak 'Su (arte)an' emanaldia eskaini zuen. MAITE MARTINEZ

lanean". Artistak bilatzeko, besteak beste, Uharteko Arte Garaikideko Zentrorak dituen artxiboetan "bilatuz eta bilatuz" ezagutu ditu. Celia Eslavaren kasuan, esaterako, ikerketa egonaldi egin zuenean ezagutu zuen eta bere lana Nafarroako Museoan ikusi zuen, "oso ondo elkar ulertu genuen". Aizpea de Atxa ere aurretik ezagutzen zuen, "eta bere lana interesatzen zitzaidan". Emaitza interesgarria da.

Rubio gauza "nahiko zehatzak eta irakurtzeko errazak" bilatzen saiatu da; hortaz, gehienak figuratiboak dira: eskultura, hitzak eta abar. "Azkenean helburua arte garaikideari irekiera egitea da, eta jendeak ulertarazteko modu desberdinetan estimulatu behar dugu".

Arte garaikidea

Uholdeak-en barruan komisarioak kontzertu bat, dantza emanaldia, bertso saioak, performance bat eta kartel tailerrak antolatu ditu. Altsasun egon aurretik, programa

HIRU ILDO NAGUSI LANDU DITU: GORPUTZA, ESPAZIOA ETA MEMORIA FEMINISTA

Agoitzen egon zen eta, ondoren, Tafallan izanen da. "Azkenean horiek ere badirelako arte garaikidea, ezta? Artea demokratizazio batera jotzeko modu bat da". Arte plastikoak "zailtasun intelektual batekin" lotu izan dira, "askotan jendearengandik urrun gelditzen da", baina arte garaikidea dantzarekin, musikarekin edo bertsoari lotzeko modu bat da. "Azkenean, sorkuntza garaikideak dira, gaur egun egindakoak, eta diziplina bat ez da bestea baino gehiago". Loturak eta elkarloturak bilatzea eta sortzea da gakoa.

Arte emanaldi eta ekimen hauek antolatzeko orduan, Rubiok herri edo zonalde bakoitzean sormena lantzen duten taldeak bilatu zituen. Horrela, Ibil Bedi taldeko Ibai Irunberrikoa da, Agoitzetik gertu dagoen herria, eta Tafallan herriko Artafandula taldeak emanaldia egingen du. Altsasun Sutan taldeak ikuskizuna egin zuen. Alde batetik, jendea aterata gerturatzeko modu bat da, bestetik, herriko taldeen lana balorean jartzen dute, eta "interesgarria iruditzen zitzaidan aurkeztea gorpuzkeratik abiatutako arte adierazpenak era desberdinetan": Musika Ibil

bedirekin, ekintza performatiboak Artafrandularekin eta dantza Sutan-en kasuan.

Dantza eta bertsoa

Sutan dantza taldea 2018an sortu zuten Altsasuko hiru dantzari. Dantza garaikidea oinarri dute, baina zenbait estilorekin uztartzen dute. *Su (arte)an* ikuskizuna aurkeztu zuten ostiralean Iortia kultur gunean egindako emanaldian. Taldearen lehenengo ikuskizun luzea zen, eta dantzariak *Uholdeak: X hau ez da okupatzen* erakusketaren ildo nagusietan oinarritu ziren lana sortzeko orduan. "Dantzaren bitartez, emakume eta suaren arteko harremana eraldatuko da. Su bihurtuko gara, hori baikara gu: sorkuntza", zihoen banatutako eskuorriak. Emanaldian, beraz, emakumeek historian zehar jasandako jazarpen mota desberdinak dantzaren bidez erakutsi zituzten, eta ahizpatasun eta elkartasun mezuarekin amaitu zuten.

PROGRAMAREN BARRUAN MUSIKA, DANTZA, BERTSOA ETA PERFORMANCEA ANTOLATU DITU

"Bertsolaritza ere garaikidea bada, eta nik uste orain puntu oso interesgarri batean dagoela. Ari dira gauza asko sortzen eta, horren harira, bertsolaritzarekiko perspektiba berri bat eskaintzen da". Programaren barruan apirilaren 8an, 19:00etan, Iortia kultur guneko erakusketagela, Sarai Robles, Idoia Granizo altsasuarra eta Alazne Untxalo bertsolariek bertso saioa egingen dute. Gai jartzaileak Rubio eta Usua Martínez izanen dira. "Aurten hasi naiz bertsoarekin, bertso munduan. Irakasle izateko masterra egiten ari niaz eta hor Idoia Granizo ezagutu nuen. Hasi ginen bertso eskolan eta mobida batzuk egin ditugu elkarrekin. Hausnartzen pentsatu nuen oso interesgarria zela bisita gidatu bat egitea, bertsolaritzatik abiatuta". Bertsolaritzan "performance" oso zuzen bat bezalako delatza aldatu du. "Gai bat planteatzen duzu eta botatzen dute bertsoa. Gai horren inguruan hausnarketa sortzen dute". Agoitzen egin zuen, eta "oso ondo" geratu zela esan du.

Gero dago katalogoaren kontua Irene Holguínekin batera, kriston lana egin dugu baina oso ondo aterata da eta hori gustatu zait ere, idaztearena eta abar. Moduren batean edo bestean artean munduan, bai.

Esperientzia

Uholdeak programaren komisarioritza eramatea "bizia eta gogorra" izan dela adierazi du Rubiok. Lan ordu asko izan dira, "ikertzen eta abar", eta bidean artista eta jende interesgarri asko ezagutzen ari dela esan du. "Alde horretatik, oso ondo". Baina, bestetik, neska gaztea izanda eta "horrela agentzia bat atzean izatea...", beldur pixka bat sorrarazten ziola aitortu du. "Egon daitezkeen kritikei ere nolabaiteko beldurra". Erakusketara apirilaren 28ra arte izanen da Altsastun eta apirilaren 23an Andrea Ganuzaren Kartel tailerra egingen dute, 11:30etik 13:30era, Iortia kultur guneko erakusketara aretoan. Ondoren, Tafallan mustuko du ekimena. Programaren barruan ere Irene Holguínekin katalogoa landu du, eta emaitza ona izan dela esan du. "Idaztea gustatu zait ere". Artearen munduan jarraitzea gustatuko litzaioke, eta orain doktoretza egiten ari da Rubio, "performanceari buruz ikertzen ari naiz".

"Bizimodu bat bezala planteatu behar duzu"

Erriberriko gaztelua 'Vampire Academy' telesailaren platoa bihurtu da azken hamar bat hilabetetan, eta bertan Izaskun Artigas Ezkerrak lan egiten du. Super ekoizpenaren produkzio taldeko kidea da altsasuarra

Eneida Carreño Mundiñano eta Erkunden Ruiz Barroso ALTSASU

1 Zertan zabiltzate Erriberri?

Duela urte batzuk *Vampire Academy* deitutako liburu saga bat publikatu zuten Amerikako Estatu Batuetan eta arrakasta handia izan zuen. Hiru liburu dira. Arrakasta hori ikusita Julie Plec eta Marguerite MacIntyre, sekulako emakumeak direnak, telesaila egitea erabaki zuten. Hasieran, lehenengo denboraldia egitea erabaki zuten, eta gero ikusiko zuten nola zihoan. Telesaila *Vampire Academy* da, nerabeei bideratutako drama bat. Protagonista Rose da, erdi gizakia erdi banpiroa da, eta bere helburua Lisa, bere lagun printzesa, babestea da. Banpiro onak eta gaiztoak daude, eta haien arteko erlazioak.



Izaskun Artigas Ezkerra Erriberriko grabazio setean. UTZITAKOIA

2 Zer egiten du fikzio estatubatuar batek Nafarroan?

Egia da gertatzen den lehenengo aldia dela. Ez da ohikoena horrelako superprodukzio estatubatuar bat, hau Universal-ekoa da, hainbeste denboraz hemen geratzea. Normalean aste batzuk gauza puntualak grabatzera etortzen dira.

3 Nola iritsi zara?

Ni telebistan lanean aritu naiz urte batzuk, baina nire ikasketak zinemari lotuta zeuden. Nire lehendabiziko aukera fikzioan duela urte bat suertatu zitzaidan, Iruñean. Eta, mundu hau, guztia bezalako da: jendea ezagutzen duzu... Deitu ninduten aurreko udan, abuztuan, eta produkzio departamentuan lan egiteko aukera sortu zitzaidan. Baiezkoa eman, eta ordutik hemen nabil. Produkzio lanak egiten ditut, gehienbat bulego lana. Arduratzen gara telesailaren hasieratik bukaeraraino antola-

tuta egon dadin: baimenak, kontratuak, hotelak... Zenbakiak.

4 Zenbat denborarako etorri da?

Ni abuztuan hasi nintzen, errodatajea hasi aurretik. Irailean hasi ziren grabatzen, eta hau lehendabiziko denboraldia da. Abuztu aldera emitituko dute AEBtan. Ongi ateratzen bada, datorren urtera begira, 2023ra begira, bigarren denboraldia grabatuko lukete, eta hirugarren denboraldia hurrengo urtean. Hiru urterako izan daiteke, hiru denboraldi izan daitezke.

5 Dena Erriberri egiten da?

Herrialde asko bisitatu zituzten proposamenak bilatzen. Gaztelu bat behar zuten, banpiro akademia izateko, eta zuzendariak leku aproposa aurkitu zuten Erriberri: bertan gaztelua dago eta parean monasterio bat, hutsik.

Franciscanoen monasterioa da gure egoitza. Bertan bulegoak ditugu, errodataje set nagusiak hutsetik arte departamentuak egin dituenak eta abar. Nafarroatik ere mugitu gara, Bertiz, Antsoain, Deikaztelu, Viana... Baita Donostian eta Portugalen ere egon gara. Baina telesailaren %80 hemen izango da.

6 Zenbat langile zaudete?

Egunero 400 edo 500 bat gabilta. Sortzen diren beharren arabera jendea kontratatzen dute. Estatu osotik etorritako jendea dago. Egia da Euskal Herriko jende gutxiago gaudela, baina normalean 300 bat. 600 izatera iritsi gara noizbait.

7 Nola hartu dute Erriberri?

Hasieran, emozioarekin hartu zuten. Baina hainbeste hilabete ondoren pisutsua egiten ari

zaie. Beraiendako sekulako aukera izan da ere, ekonomikoki, dirua utzi duelako, eta gero sagak arrakasta handia izan duelako eta jendea etorriko delako. Dagoeneko gerturatu da jendea. Grabaketak eta turismoa ongi uztartzen ari gara. Horretarako ekipo oso on bat dago. Aste Santuko oporretarako bukatuko dugu eta dena libre utziko dugu.

8 Aktoreekin harremana izan duzu?

Aktoreak oso gazteak dira eta taldeko beste gazteekin harremana izatea eragiten du. Bulegoko lanak asko mugatzen nau eta ez ditut asko ikusten, baina asteburuetan taldekide askorekin elkartzen dira festa giroan, eta lagunak direla esan daiteke.

9 Nolokoa da zure egun bat?

Oso gogorra izaten da. Ordu asko dira. Goizean goiz makillaje eta ileapaindegiarekin hasten dira, eta hortik aurrera hamaika edo hamabi ordu izaten dira. Fikzioaren mundu honetan minutuak oso garestiak dira, eta dena kontrolpean eraman behar da. Lana

gogortzen du. Talde lana oso garrantzitsua da, baten eginkizunak hurrengoak ez badu jarraitzen, ez du ezertarako balio.

10 Proiektuan jarraituko al duzu?

Bigarren denboraldia badago, badakit deituko naute. Nahiago dute aurretik egon den jendea kontratatzea, dena ezagutzen dugulako. Baina kontua da ohartu naizela etorkizun luze batean ez dakizula non egongo zaren. Izan daiteke libre egotea, edo ez.

11 Zer da onena? Eta txarrenea?

Lehendabiziko gauza da lanera gustura etortzea, eta etxean nagoela. Hilabete asko izan dira eta ordu asko; bizimodu bat da. Horrela planteatu nuen, eta esperientzia abesgarria izaten ari da. Kanpotik dirudi mundu ideal bat dela zinemarena, baina badiu bere gauza txarrak. Alde batetik, ordu asko direla eta egunerokotasuna mugatzen dizula. Bestea da proiektu bizi behar zarela. Hau bukatzean ez dakizu non jarraituko duzun lanean.

gik

DISEINUA ETA
KOMUNIKAZIOA

619 821 436
info@gkomunikazioa.eus
Foru plaza, 23-1. Altsasu